KOLDO IZAGIRRE

parisen bizi naiz



Parisen bizi naiz

Koldo Izagirre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2013 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2013ko urria
Edizio hau: 2013ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

PARISEN BIZI NAIZ

eta parisen bizi naizelako naiz
beste inora ezeko
hementxe dauzkat
txunditzen nauten gauzarik arruntenak
egunero ikasten dut bertan
biharamunean bizitzeko atzendu beharrekoren bat
eta louvreraino joan behar izan gabe
arruntean eztitzen nau ikusgarritasunak
euria hasten duenean
hemen eraso egiten duenean
teilatuak bustitzen baitira aurrena
leihoan gelditzen naiz
arrain ezkatak diren teilei beha
nire damu guztiak kolkoan
euriak inon ez bezala bustitzen du hemen
eta euririk ez denean berriz
zink idorraren hautsa goiak duela kolore
gelditzen naiz etxean
non edo han euripean
elkorrik edo elkarrik doazenez pentsatzen

argiak antzo hitzak lausoan
fou de paris?
si si si!
parisen bizi naiz
marrutxipi izeneko auzoan

parisen bizi naizelako
promenatzen naiz sena doan bezain nagi
mirabeau zubi guztietarik
hiriaren galanta miretsiz turistei esaten diedala
badakizue non zaudeten?
badakizue muino hau ez dela montmartre?
badakizue burdina puska hori ez dela eiffelek egina?
badakizue berlinek ez daukala honen parekorik?
baietz egiten didate kopetarekin behi guztiek
japonieraz egin banie bezala
karrika artean galtzen naiz neu ere turista
michelin gidan ageri ez diren kantailak
deskubritzen ditut egunero
zementuzko leizeak hondakin apainduak
amorru nekatuak pareta berrien aurka
nor den ez dakidan baten diosala
zintarri garbiak laprast eraginik amildu naizen
agerraldian

zer bete dute agindu zigutenetik?
eta nahikoa galdu naizenean
horra hor ni neu gogoetan berandutua
non ote nagoen oraintxe galdezka nire buruari
zer hiri mota den hau
zer asma nezakeen hemen ez egoteko

mundua esku berrehun pausoan
peur de paris?
si si si!
parisen bizi naiz
marrutxipi izeneko auzoan

zoragarria da hiri hau
tuilerieseko txolarreak datoz balkoira
loreen lurraren harrotzera
zazpi katurekin bizi dut behean
zetazko ikararen azpian bustirik posatzen duen
modeloa
amonalisa eta jose manuel berriz aurrez aurre
ez koadrokoa, elur-mamikoa
malenkoniak hartzen nauelarik
norteko geltoki gaineko zubira joan ninteke
urruntzen diren trenei beha

ahosoinuan maitia non ziraren notak bilatzeko
hemen maiatz bat ukan zuen urteak behin
ikas genezan
gaztetzeak beldurra ematen diola zaharrari
hondartzaren azpian dauzkagula
titirik irmoenak lako harriak zer deritzozue
entzun nik entzuten dudana
eta bekatuak banatzen dizkigun sacré-coeur ankerra
eraitsiko bagenu goi horretarik?
eta kabareta bihurtuko bagenu museo arkeologikoa?
eta su emanen bagenio area erromantikoari?
eta bestelako hiri bat asmatuko bagenu?
parisen bizi naizelako
dauzkat hemen uhinak maizter
marrutxipi deritzan auzoko
hogeita hamabostean, hirugarrena ezker
euria sortzen paris sortzeko

non datorren galerna itsasoan
la mer à paris?
si si si!
parisen bizi naiz
izan eta ezin biak partxoan

eta parisen bizi ez naizelako
promenatzen naiz sena doan bezain nagusi
mirabeau zubi guztietarik
hiriaren alferra miretsiz bertakoei esaten diedala
badakizue non zaudeten?
badakizue hiri hau ez dugula guk eraiki?
badakizue zer dagoen hango muinoez haraindi?
ez ulertua egiten didate
euskaraz ariko banintz bezala
hiriostean galtzen naiz neu ere besterako biztanle
michelin gidan ageri ez diren kantagaiak
deskubritzen ditut egunero
zakur gorotza baino egoskorrago
itsasten zait paris oinetakoen zolan
urratsez urrats igeltseroak okinak
grebalariak ikasle alegerak luzeko langabetuak
paradisu bila galdutako guztiak batzen zaizkit
etxetik irten orduko euria hasi orduko
hemen euria ari duenean
pitzatuak bustitzen baitira aurrena
fabrika abandonatuan sartzen gara
metalografia aretoko mahaian
atzo utzi garagardo latak biltzera
egin behar genituzkeen guztiak asmatuz

euriak inon ez bezala hunkitzen baitu hemen
eta euririk ez denean berriz
deskutsatu gabeko lurra beheak duela kolore
gelditzen naiz etxean
parisen euripe ibiliko naizen hartaz pentsatzen

hiri bat ederraren ertzean
la merde à paris?
si si si!
parisen bizi naiz
bestelako aukerarik ezean

DRAMATIS PERSONAE

erromatarren hilarrietan
euskal hitzak zizelkatu zituzten harginak
hitz haiek ezabarazi ez zituen prokonsula
harginak kontratatu zituen bitartekaria
harriak erosi zituzten ahaideak
harrobitik atera zituzten peoiak
harrobiaren jabea

historia liburu zaharretan
bitxikerien adibide ageri diren
balada zatitxoen egile ziren
ahaide nagusien hilobi zuloan
mendekuzko deitoreak egin zizkiguten
emazte eta alaba haiek
bitxikeriatzat betikotu zituzten historialariak
historialariei kantatu zizkieten herritarrak
herritarren artean hedatu zituzten kantariak
gogoan hartu zituzten hilerrikoak

jaun kondeak hilarazi zuen gaztearen
hiru dozena atorrak
haiek garbitzen andozeko ibarrean erotu zen ama
jaun konde hiltzailea
biktima bera, izenez bereterretxe
bostehun urte geroago
hilketa diskoan grabatu zuen artista
grabaketa etxeko soinu teknikaria
diskoa salgai jarri zuena diskoa erosi zutenak

haragia emazteen fabore laketu zuenik
ezin ziurta genezakeen
gure lehen liburua
inprimategia sortu zenetik ehun urtera
idatzi zuen apaiza
bordeleko moldiztegiko langileak
ezagutzen den ale bakarra gorde duten
pariseko bibliothèque nationaleko zuzendariak
haren faksimila publikatu zuen
euskarofilo integrista espainiazalea
haren metrika aztertu zuen jesuita
jalgi hadi plazara kantatzen dutenak

eredu frantsesak imitatzen zituen
abokatu eta jakintsu libre zuberotarra
haren poemak aztertu zituen etaren sortzailea

aitak behartu zion emaztearen amorantea
akabatu nahirik tiroa erratu eta
adiskide baten erailea bihurtu zen
bere euskalkikoak ez garenok
zerbitzu filologikoetara behartzen gaituen
etxe oneko alproja
balada bat eskaini zion adelbert von chamisso
balada hura euskaratu zuena, nafarra hain zuzen
bertsoak bildu zizkion euskaltzainburua

ahoz aho heldu zaizkigun bertso sail zatiak
eman dizkiguten hatsa presondegian eman zuten
anonimo franko
bertsoak kartzelatik atera zituzten mugalariak
presoen idatziak irakurtzen dituztenak

ahalegin tamalgarriak egin zituen
abade samalda bat
idazten utzi zieten nihil obstat emaileak
euskararen gramatika irakatsi zieten abadeak

ahalegin txalogarriak egin zituen
beste samalda bat abadekondo
marxismoaren oinarriak
multikopiatzen zituzten apezgaiak
apezgaiak liluratu zituzten neskak

lurra belzterainoko analfabeto sailak
analfabetoak behar zituzten ilustratu ongileak
gosetuen matxinada zanpatu zuten
ongileon morroiak
gosetuak matxinadara sustatu zituzten
buruberoak gosetuak berak
gai honetaz ikertu dutenak
gai honen zurrunbiloan nobela idazten ari dena

gitarra batekin bertso txar kantagarriak
kantarazi zizkigun bohemioa
gitarra hura gorde zuen udala
gernikako batzar etxera eraman zuen agintaria
sorterriko plazan daukan monumentua
kentzen ez duten udalbatzak

argentinan askatasuna aurkitu zuen bertsolaria

buenos aireseraino eraman zuen
pakeboteko kapitaina
pampan ibili zuen zaldia
itzala eman zion ombua
haren izena ahoa betean ibili duten bertsolariak
ehun urte geroago
bertsoak zentsuratu zizkion telebista

horrelakoak ditugu gatazkaren protagonistak
lirika mengel maitagarria egin zuen gerentea
biziarenak gazterik eramana
katolikoek fusilatu bat
katoliko hezurretarainokoa
guatemalan mistiko ibili zen moralista hura
emigrante espainiarren premia espiritualak arintzen
suitzan hildako poeta amorratu abertzalea
parisen euskalduna izan zen suizida filonazi
bakartua
harria probokatu nahi zuen kontadorea, hau ere
gazterik
horrelakoak

eta ovidioz edo virgilioz galde egiten diguten guztiak

IBON SARASOLAK ERRUA

Suteak sortzen zituzten tarteka jaizkibel mendian
bikaina ikusmira bikaina
laster helduko zen pinu erre kiratsa
baina gau gehienetan ilargiari beha egoten nintzen
zerura edo igelik gabeko portuko putzura
etsiak jota
azkazaljale amorratu
nire gaztetasuna ezin sendaturik
noiz ere ibon sarasolak poesia sortu zuen
ilargia apurtuta

horregatik diot ibon sarasolak daukala errua
harrika eman zion ilargiari
eta apurkada hartarik sortu ziren izarrak

ekintza noble bat izan zen ekintza gaztea
eskuzabala ukabildua
ondorioak kalkulatu gabekoa
ilargia bat zen eta milioika dauzkagu orain izarrak
ilargia harri barruan geneukan
eta izarrak urrun bizi dira

ekintza poetiko bat izan zen
arazo handi bat konpondu zuen handiago bat
sortzeko

ukondoak leihoan egoten naiz gauari
afalondoko auzo pipazaleen antzera
pinu erre usainik gabe
aldizka izarrak ageri zaizkigu teilatu artean
baina ez dut hasperen egiten
azkazalei behatzen diet
egon-maina dekadente bat, aitor dut

ez naiz gaztea eta ez daukat indar handirik besoan
arazoak anitz dira orain eta urrun dagoz
konpontzeko
poesia etsiak jota dagoela entzun eta ezin hasi
harrika

MARLAXKA

nork daki
paradisuko hondartzaren hautsa
etorri ote zaidan begietara
nik ez
edo tahitiko laminen marruek
zorabiatu ote nauten
edo ez ote nauen zeroien murgil dotoreak
altxor ugertuz bete osinera erakarri

neure burua bota baitut uretara

hegazkina urrunduz doa
gero eta txipiago ikusten dut neure burua
geldirik
eskurik eta zangorik gabe
—hegalik gabe
niregana egiteko gauza ez denez

zangoak zolako moketan dauzkat atxikiak
atzamarrak egunkariaren belarrietan
gogorturik

aginduko dien burua gabe
jauzi egiteko gauza ez direnez
—hegalik gabe

neure burua hantxe buia ñimiño bat
nork daki
zeroien marruetan laketzen
edo naufragoaren hamaka zoroan zorabiatzen
edo begiak izar iheskariz betetzen
—hori bai, izan liteke
begiak izar iheskariz betetzen
marlaxkaren bat pausatzen zaidanerako

SOBERA BAINO HOBE ASKI

aski euskalduna bai
egia eta egiantza bereizteko
aski euskalduna ez
begia zalantzan jartzeko

aski bai
bakartasuna pairatzeko
zerura ez behatzeko
aski ez
ondo esan beharko ez erantzuteko
absurduaren muinean bizitzeko

aski bai
multzoa maitatzeko defendatzeko
estrategiaren zokor kozkorrak okaztatzeko
aski ez
agerian sustrai hartzeko
proposamen sumingarririk egiteko

aski euskalduna bai
harrotasun bat erakusteko

aski euskalduna ez
inoren aurkako euskalduna izateko

aski bai
angelu hilak atzemateko
zinezko arrangurak gozatzeko
aski ez
urratzearen urratzez aitzinatzeko
errealitatea bere esku hartu nahi izateko

aski bai
gure ahuleziak detektatzeko
sorterriaren ezkilak ez entzuteko
aski ez
azken txostena ez irakurtzeko
gerotasun bat berotasun bat begitantzeko

aski euskalduna bai
zer garen non gauden jakiteko
aski euskalduna ez
euskalduna izatea ez dela aski onartzeko

aski du
aske izan gabe

aski euskalduna bai
egunero jaiotzeko
aski euskalduna ez
gauero hiltzeko

Ez daukat juzku txarra pentsamendu politikoaren ardatz. Sinetsia nago beti errezelotan ibiltzea fede gaiztoa besterik ez dela, ezinetsia nago hori ez dela pentsamendua, are gutiago politikoa, baina aitortu beharra daukat zain makurrenak hartzen nauela jende mota bat zenbait arazoz arduratuta ikusirik. Klase medikua herriaren osasunaz kezkatuta agertzea, esaterako, susmagarria egiten zait.

Jaizkibel aldean arazoa.

Sakondura luzea, zoko ilun bat esanen genuke, eta baserri bakanak baino ez inguruan. Horra non egin behar omen duten Txingudiko erraustegia. Zergatik ez? Pasaian bizi den jendearen hamarrena ere ez da bizi hemen, eta han badauzkate lehen zabortegi ireki, gero kontrolik gabeko erraustegi eta orain lurpeko irakinez metanoa sortzen duen antolamenduaz beste, zazpi probintzietako errekarik kutsatuena eta zentral termiko kutsatzaileenetarikoa. Uste duzue klase medikuak atera duela txintik inoiz? Alabaina, Gipuzkoako minbizi tasarik handiena dago Pasaia aldean, eta Jaizkibelen orpoan bertan dago.

Orpoa urrun dago magaletik Jaizkibelen.

Magalean, «inpernu-erreka» horren gainaldean, egutera ederrean, txaletak. Eta beste hegian golfa, goi mailakoen eremua, «urbanizazioa».

Sarrera debekatua bertakoentzat izan ezik.

Arrazoi hoberik aurrera egiteko!

Beha ezazue ezker-eskuin, dena da jabego pribatu, bideokamera, langa erraldoi, igerileku, kontuz zakurrekin, hormigoizko hesiek babestutako belardi... eta aldarri bera ate automatiko gotorki zarratu guztietan, oihalez, luxuzko protesta, Euskal Herriko pankarta kontzentraziorik handiena.

«Erraustegirik ez».

Herriaren osasunak arranguratuko balitu bezala azaldu zaizkigu hortzalaria, neurozirujaua, traumatologiako burua oldar mediatiko batean beren klasearen abanguarda tekniko gisa, etxeko lorategian ihintz beltza egin behar dielako espantuka. Eta «urbanizazioan» sarrera debekatua daukagun guztion elkartasuna nahi lukete, beraiei eginen omen zaien kaltetxoa injustizia kolektibo bihurturik. Horra bada zergatik «Eraiki dezatela erraustegia!» egiten dudan neure kolkorako, «Eraiki dezatela erraustegia golfean bertan!»

Pentsamendu politikoa, zer bestela.

Ez nik ez nire auzoek ezein pankarta zintzilikatu ez dugun arren, balkoira irten eta erraustegia ikusten dugu harri barruan, hilerrikoa. Idazleok golftarrak ez garelako froga hau indartzeko esan dezadan Fito Rodriguez ni bezain hurbil bizi dela, eta Felipe Juaristi berriz gu biok baino askoz ere gertuago, sarreran «Errauztegia» dotore dioen udal-eraikin tximiniadunetik guztiz hurre. Poema hunkigarria sorrarazi zioten batzuetan etxeraino sartzen zaigun labe-usainak eta gurutzeen artean egunero ikusten dugun ke zuriak.

Juduak sentitzen baikara auzoan.

Hildakoak erraustearen aurkakoek diotenez, gorpuarekin batera plastikozko mokorrak, balbula koronarioak, merkurioa duten hortzazalak, osagarri kutsakorrak dauzkaten katabutak erretzen dira. Ez dakit zenbaterainoko pozoia sortzen duten elementu hauek sutara botata, baliteke handia izatea. Baina nik bestelako argudioak dauzkat gorpuak erraustearen aurka egoteko, argudio poetikoak, hots, argudiorik zientifikoenak.

Dachau handi bateko juduak.

Kare bizian ehortziagatik, gorputz hura torturatu egin zutela adieraziko du handik urteetara esku-hezurrak, hatz mutilatuak.

Forentseak «suizidatu» egin dela dioen emakumearen gorpuak hil aurretik hortzak apurtu zizkiotela esan lezake gerogarrenean.

Errausten bagaituzte, ordea, nola erakutsiko dugu erraustegiek berek zizkigutela endekatu gorputzak?

Geuk ezabatu behar ote ditugu gure hiltzaileen hatzak?

Joseba Tapiak kantatzen duen bezala «Maitasuna helduko da» noizbait mundura, «Gu gaudelarik lurpean» bai, baina helduko da eta orduan gu guztion gorpuak beharko ditu, autopsia berriak gozo bezain zehatz egiteko: horrela salatu ahal izanen ditugu banan-banan hortzalaria neurozirujaua traumatologiako burua, erran nahi baitut, zaborrez eta zabarrez egunean baino egunean ozarkiago hiltzen gaituen euskal burgesia hutsal, berekoi, hipokrita hau.

Maitasuna helduko da eta sutara botako ditugu susmoak eta juzku txarrak.

Milesker dioxina, milesker furanoa... milesker, aliatu taktikook.

(Sutarakoak. *Berria,* 2004-12-05)

BENEDICTINE

portu aldetik geltokiko burdinbide saila
liburu bateko lerroak iduri
haratago moila transatlantikoa
baskularen eraikin modernista txipiarekin
bagoiekin traktoreekin lokomotorekin
garabiak higidura dotoreetan bodegak husten
baforeak lurrun zurrutak jaurtika pilotuari deika

nahiago hil!

likore fabrikak harrobi aldetik
marie brizard publizitatea paretan lau margoz handi
licorera vasca burdinazko hizki gorriekin
benedictine bere usainarekin
suedia eta norvegiako kontsulatua bere arranoekin
kontsularen alabak masta baino tenteago
medikuarenak bizikletan espaloitik
sardintzar kutxak elizako arrosa-leiho
gartziandiareneko fruta artean

nahiago hil!

baten batek belarrira

bizia zen hiriburuak gainbeheran utzia zuen
ibili samurreko malda hau
gorpuak ere handik gora joaten zituzten hilerrira
gure lagunen baten anaia txipia
gurutze prozesionalarekin
apaiza haren atzetik estola lepoan
misala eta zigarroa esku banatan
musika bandako batzuk metal doinu ilunean
eta ni beherantz trenbide aldeko espaloitik
beste inor ez
benedictineko anis eta limoi usainean xarmaturik

nahiago hil!
ez zen hildakoa izan
hildakoa hila bazen

lantegiko atarira irten ziren
benedictineko emakumeak
gazteenak ez ziren sinatu gurutzea pasatzean
malda hartan bertan azalduko zen lehenago
florentino anaien kamioneta
ur arrasto bat utziz makadamean

odol arrasto bat
gau oroz eginiko krimenaren froga zekarten
kako zorrotz beldurgarri hura gangster pelikula bat
tabernetara banatzeko
izotz blokeak apurtuz garbitzen zutena
nor izan ote zen zergatik niri belarrira
zer baino nahiago
institutuko lanetan hasten nintzen aldiro
atelier mekaniko zaharraren gaineko gela nagusian
lanpararen ondoan
aitak egina benedictine botila bereziarekin

nahiago hil!
baten batek belarrira
nahiago hil!
ez zen hildakoa izan
hildakoa hila bazen

bazen zer edo zer
fuelaz eta kresalaz eta alkoholaz haratago
hiriak gainbehera bultzatutako errepide zati honetan
isileko zer edo zer ozeneko zer edo zer

MOTORRAK HARILKATZEN

ez dut egundo ikusi horrelako atelierrik
esan zidan aitak gure aita zaharrak
zenbat erreminta!
mokorreko ebakuntzatik bere onera etorri zenean

kirofanoaz ari zitzaidan bistan da
hamabi urte bete zituenez geroztik
gisa guztietako lanabesak
baita hurkoa hiltzekoak ere erabilia zen gizona

ikaratu egin zela

ez zuen ulertuko ez nion esan ni ere
kirofanoan ilusioz beterik
osorik osatzeko asmo zintzoenarekin sartu
nintzenean
kirofanoa baitzen hura
asindeton & soneto & etopeia apositoak
metonimia & diafora injekzioak
pleonasmoz & epinomez zorroztu zerrak
polisindeton & sinekdoke & anafora bertikal &

alexandrino & epanadiplosia tantaz tantakoak
paranomia & epifrasia & homeoteleutona bisturiak
damoklesen ezpata bana bailiran
(alderaketa kultu ohia, topiko arrunta)
paretetan zintzilik
gure buruetara buruz ikusirik (aliterazio merkea)

ikaratu egin nintzela

ihes egin nuela
eta handik harat ezikasien multzoan bizi izan naizela
bestelako lanbide bateko ofiziale
erreminta gutiren patroi hitzak eskuan hartu ahal
izateko
legez kanpo aitor dut
ez titulurik ez titulua eskegitzeko bulegorik

zu bezala, aita
motorrak harilkatzen eremu magnetikoak sortzeko
(metafora egokia, ezta?)

IL POMERIGGIO È TROPPO AZZURRO E LUNGO PER ME

harrigarriak zarete benetan, ez dakizue kantari!
—esan omen zien etako bi haietarik batek
gure borroka, aldiz, kantu bat da osorik...

zergatik joan ote ziren trentoraino 1969 urrun
hartan?
teologia ikastaroren bat eginak inoiz?
iraultzaren aztarrenak hartzera?
inguru libre bila errefuxiatuen diziplinaz itota?
zer diziplina mota zeukaten baina historiaurrean?

esangura asko eransten ahal zaizkio
kantuaren ohar honi
—dio renato curciok a viso aperto-n
baina sarritan etorri zait gogora
haien esana urteen poderioan

esangura asko eransten ahal zaizkio
italiar batek ez abesteari

—diot neure artean
ezagutzekoak izan behar zuten
kantari nahi ez zuten trentoko gazte haiek

nondik brigate rosse izanen zirenen
eta euskaldunen artekoa?
apur dezagun katea? euskal herri nerea
ezin zaitut maite? apezen batek eraman ote zituen
bere peugeot zaharrean? itzuli ote dira? zertara?
zer kantatzen ote dute bidean, bidean badira?

ezer larririk ez
halako malenkonia politiko bat noizean noiz
hitzak gauzen isla zirela uste genuenekoa
hau ez beste orain baten etorkizuna ginenekoa
il treno dei desideri nei miei pensieri all’incontrario
va

HITZASPERTUA TXILLARDEGIREKIN

noizbait plaza hau etxe bat izan zen
noizbait etxe horretan txalupagilea bizi zen
noizbait txalupagileak txalupak egiten zituen
noizbait txalupek ibiltzen zuten itsasoa

itsasoa txalupek ibiltzen zuten era berean
ibiltzen zuen txalupak txalupagilea
ibiltzen zuen txalupagileak etxea
eta izan zen etxe bat plaza berri durduzagarri hau

hantxe pausatzen zuten ibilia xaharrek eta umeek
zurez zur osatuz zihoan artelana miresteko
etxe izandako honetan ere pausatuko duten
eskulturari
inork jaramonik eginen ez dion era berean edo
besterenean

ehun metrora ez urrunago daude uhinak
eta uhinek ibiltzen duten hondartza
baina itsasoa ikusi ezineraino joana da

bere artea beste nonbait hedatzearren
ikusi ezineraino joana bere txalupekin

etxe hura barik geratu da karrika hutsago
zurgina barik geratu da zura inkultuago
itsasoa barik geratu da hondartza areago
txalupa barik geratu da hiria usteago

ZEHAZKA KANTU BAT

langarraren planoa egin behar zuela esan zidan
nolakoak diren zehazleak
mugak neurtu behar zituela langarrarenak
ez dakit zein erakundek eskatuta
langarra, badakik, argitu zidan
errepideetan hainbeste arazo sortzen duen hori
ahosoinua atera nuen sakelatik

eta ahosoinuaren soinura, hots, hots!
langarra sortu zen, badakizue
zehazleek maite dituzten arazobide horietarik bat
eta lagunak, irentsi ninduen barrutasunak
zehatz ezin nezakeeneraino izututa
hankajokoa egin zuen argiaren harian barrena

zeharoko ezintasuna daukat zehatzerako
apirila ez da biribila
ez dakit zenbat balio duen lagun batek
ez dakit nondik joan behar dudan etxera
ezin dut neurtu sukarra termometroan
bihotza ez da bonba bat

nork daki zein den ordu zehatza?

alferrik da kordetasunaren harra
txertatzen badute ere liluran edo auzolotsan
edo asmamenean edo tristezian
tonua goititu gabe jarraituko dugu
langarrak eta biok gure trosta amilkarian
ertzik ez daukan barrutasunak
kode eta koordenada guztiak suntsituko ditu
nota zehatzik ez daukan kantuan

zeharo motza naiz zehatzerako
apirila ez da biribila
ez dakit noraino iristen den gaua
ez dakit zer idatziko dudan hurrengo lerroan
zientziak ezin du lurra eskuan hartu
barrutasuna ez da kutxa bat
miresten ditut zehazleak
musika egiteko aski dute metronomoa
nik ahosoinua behar dut langarra sortzeko

entzun ezazue musikaren azpitik datorren kalapita
itsutu egin ditugu neurgailu guztiak
zehazleen armada urduritu egin da

ezin dute barrutasuna jasan
plaza publikoetan ere arazoak sortu ditu langarrak
mugagabea nagusitu da pragmatikan
eta elkar zehazten hasi dira zehatz
hamazazpi mila topografo garratz
sarrats... sarrats... sarrats... sarrats...

JOSE MANUEL ENEA

etxe apala da baratze txipi bana atze-aurrean
hiru solairu berrogeiko hamarraldian egina hor nonbait
lehen metro biak harrizkoak ditu adreilua da gainerakoa
premia zeukan eta margotu egin dute
teilatuaren jarraipen larua dirudien modako izokinez
xingola horiak leihoen goialdeko inguruan
burdin ziriak hegalaren perimetroan usoak uxatzearren
lan txukuna egin dute errumaniar horiek
horixe esan dugu auzotarrok aldamioa kendu dutenean
ikusgarri ageri du orain etxeak zenbakia lehen ez bezala

haurra eskutik neramala ikusten baninduen
galdera bera egiten zidan sarritan jose manuelek
hiru urte zeuzkala erantzuten nion lau bost
beti geratu izan zitzaidan hizketan
haur hura garai egokian ekarria zela esanez

tristura luze bat izan zela beren bizitza

autobideaz haratagoko baserrietarik egin zioten eraso
faxistekin bat egin nahi zuen kuartelari
koltxoiak leihopeetan babesgarri paratuta
eta larrutik nozitu behar izan zuten gero
zanpaketa gogorra izan zutela auzoan
esaten zidan jose manuelek
nolako lanak nolako bizimodua nolako zahardadea
makulu birekin ibiltzen zen amona lisaren senarrak

baserri hondatua bota eta azken margotu honetaraino
jose manuel enea
letra beltz ikusgarritan ageri izan duen
hiru solairuko lau ataridun etxetxo luzexka
egin zuen gizon jator hark berak
eta etxearen izena ikusi izan dudan aldiro
azaldu zaizkit begi bistara jose manuel bere kontuekin
amona lisa bere talo aurpegiarekin bere diosal gozoarekin

guk eiñan eta iru anaienan eta eguzki alden eta loredin
bizi diren auzotarrak dauzkagu oraino
eta tolareberrin eta aitz-tokin
eta villa gallegon eta ama ikan
postariak ere ez daki zein zenbaki duten etxeok
margotu premia daukate batzuek eta laster dugu jakinen
jose manuel hil delarik
jose manuel enea mututu duten lege berdinean
dituzte mututuko haurrek
ez dezaten karrikan irakurtzen ikas
haurrek ez dezaten galderarik egin
haurrek ez dezaten jakin etxeek ere egiten digutela hitz
eguraldiaz topografiaz lanbideez izadiaz ametsez
aitzinetik pasatzen garenoi
hitzak ate direla ate horietarik irten litekeela
gizon alai bat makulu gainean
edo bere emazte amona lisa
koadrokoa ez, esne-mamikoa
umeei labean egin berritako bizkotxoa eskainka
bizitza gogorra dela
entzuten duten bitartean jan dezaten

barne bana eta bina
dauzkatelako hitz egiten diguten etxeek

POST

Kontzeptu bat adierazten dutela
ateek paretek leihoek koloreek
irakurri dut oraintxe Hendaiarako TGVan
—correspondence avec euskotren
départ 21/10 à 14h28 classe 2
voiture 12 place assise 33
—leiho aldea, ibiliaren norantza
zimur utzitako magazinean
eraikinak mintzo ahal direla hitzik gabe, egia da
kontzeptu bi edo hiru edo munstrokeria bat
adierazten ahal digute egunez eta gau argiz
alabaina jabetzaren titulua baino areago da sinadura
—jose manuel enea
etxea den bezalakoa eginarazi
edo albait txukunen
teilatua ematea lortu zuenaren garaitza
gailurreko lizarrak edo dena delakoak
poetaren ereinotz koroak beste balio du
larrutik nozitu behar izan genuen

gogor zanpatu gintuzten esaten badizu
nolako lanak nolako bizimodua nolako zahardadea
sindikatu bertikala erlijio bertikala
arkitektura bertikala
eta jose manuel enea hantxe gure ondoan
—nik eiña adierazten apal eta harro
sailkatu gabeko jakinduria baten emaitza urbanoa

Kubota tankeak ezpondetan makur.

Komatsu blindatuak erreka zokoetan trebes.

Liebherr inbasore erraldoiak teilatuez goiti, hezurdura hutseko zentinela tenteak.

Dena osorik ordea, gerlaren kiskalmenik gabe, bihar estatu zibilizatuek Angolan edo Iranen edo Kuban sortua dela frogatuko diguten bakteria batek pertsonak suntsitu izan balitu bezala. Eta jendeak apalago egiten duela hitz, matxinadaren hotzikara gozoan edo iraultzaren bezperako izuan.

—Greba da...!

Greba bat ukan dugu Gipuzkoan, aspaldiko partez.

Eraikuntzan ibiltzea, nolabait, erakustegian dagoen prostituta izatea da. Guztion begi bistan obratu behar du langileak, eta sortzen ari denaren zelakoa epaitzeko gauzkate sukaldeko axuleiu pitzatu hori aldatzeko gai ez garenok. Erretreta hartutakoek egunero egiten dute itzuliño bat plazan zulatzen ari diren aparkalekuraino, uholdeak areagotu eginen dituztela deritzate guztiek. Karrika nagusia berritzen dihardu-ten langileen garraio zoroak darabiltzate etxekoandreek ahotan saltegian. Ezkerreko auzoak uste du

igeltseroek kalapita handia ateratzen dutela beheko solairuko zorua harrotzen, salatu egin behar omen genituzke.

Eta gero, noizbait, ezustean, elkartasuna zor diogun egitate gordina.

Dena geldirik eta ekaitz handia omen dakarren isiltasun berezi hori hondeagailu orroz, garabi intziriz eta mailu neumatiko tarratadaz gortu behar genukeen bazterretan. Hustasun horretan, isiltasun horretan, nabarmenagoak egiten zaizkigu lezoi hutsak eta erdizkako eraikinak.

Grebak museo bihurtzen du hiria.

Grebak langile xumeen artea erakusten digu.

Espaloi ondoko putzuari behatuta konturatzen gara egun ez daudela hor palaka aritzen diren arabiarrak, eta orduan ohartzen gara arabiarrak palaka direla aritzen, eta ez hondeagailuak gidatzen.

Atzo ez bezala, orain ematen digu begian teilatu hartan lotu duten lizar edo ereinotz adarrak, eta geure kautan ugazaba euskaldunaren manuz ote den, edo belaunaldiz belaunaldi gordetako usadioa duten.

Erlaitza konpontzeko zintzilikatu duten aldamioa hutsik ikusten dugu, eta Uztapideri eta Xalbadorri jarri zieten gai hura datorkigu gogora, bietarik batek

hil egin behar du bestea salba dadin, zaudeten aldamioak lur joko baitu bestela...

Grebak erakusten dizkigu langileak.

Eta hilabete eta gehiagoan abandonaturiko obrek ikusarazi dizkiguten hamabi mila beharginon izerdiaz, kulturaz eta arriskuaz jabetuta, harro galdetzen ahal dugu zer daukan miresgarri Sixtina Kaperako sabaia goiko aldamioan etzanda pintatu izanak.

Ez ditu oraindino urte bi artxibo zoko batean aurkitu agiriek frogatu zutela sabaipean etzanda pintatzen zuena ez zela Michelangelo izan, Berto, Bello, Boco, Bondo eta horrelako beste asko baizik, gure egungo grebalariok. Michelangelok daukan miresgarriena ez da ez bere pintura, ez bere eskultura, ez bere arkitektura: ez zituen zabor-kontratuak maite, hamabost, hogei, hogeita hamar urtez gorde zituen aldean enplegatuak; gure enpresariek zimur nola, hala ordaintzen zien hark zabal; erori egiten diren zubiak barik, luzerako artea egiten zuen hark. Horixe dauka miresgarri Michelangelok, kontzientzia zeukan enpresaria izatea. Ez, Buonarroti jauna ez dago Adegin.

Horregatik ukan dugu greba bat Gipuzkoan, aspaldiko partez.

Amaitua delarik, lehen bezain ozen egiten du hitz jendeak, ez gozo ez izu.

Gaurdanik ez zaigu bururatuko Liebherr inbasore erraldoien hezurduran dagoen kabina goi eta mendre hartan langile bat dagoela preso, Kubotek eta Komatsuek lokatza zabaltzen dutela besterik ez dugu komentatuko, aldamioren bat ikusitakoan bertigoa aipatuko dugu, dirutu berrientzat eginiko atebitarteko txalet multzoaren teilatuan lizarra edo ereinotza sumatuta poztu eginen gara geure ohitura jatorrak ez direlako galtzen, kontratistek langileei monjorra ematen dieten ez dakigun arren...

Itzuliak gara, aspaldiko parteko greba baten ostean, betiko okerrera. Polizia ez dago jadanik patronalaren egoitza zaintzen, egoera normal batean gau eta egun egon behar lukeen moduan.

Oraingoan ez da posible izan, baina hurrengo greban lortuko dugu, ez dudarik egin. Michelangeloren oniritzia daukagu.

Loiolako basilika ez da inoiz eraikiko.

(Hurrengo greban. *Berria,* 2004-VI-22)

NAHI EZ ORDEA

begia mozkor banu
gogoa motz
gibela mardo
alegia
gogoa ez banu
gibelaren ardo
alegia
gogoa burutik banu

begia zeken banu
gogoa zotz
gibela zama
alegia
gibela ez banu
gogoaren lama
alegia
gibela lepotik banu

begia merke banu
gogoa hortz
gibela elder

alegia
gogoa ez banu
gibelaren ezer
alegia
gogoa orpoan banu

begia sorgor banu
gogoa aihotz
gibela sasi
alegia
gibela ez banu
gogoaren gazi
alegia
gibela gibelez banu

begia harri banu
gogoa arrotz
gibela apotz
alegia
gogoa ez banu
gibelaren ahots
alegia
burua banu garunotz

ITSUMENA

artoa soroan behiak larrean
industrialdea errekan
ez dakit zer neukan gogoan
gelditu egin nintzen
txarrantxatik hurre
orduan sortu zitzaidan
euliak behiaren begian bezala

horixe etorri zitzaidan
euliak behiaren begian bezala
txarrantxatik hurre
ebateko zegoen artasorotik
larrearen goialdean
kasu eman nielarik
hausnarrean ari ziren buruei

zenbat aldiz ikusia ote nintzen
behiak larrean etzanda
txarrantxatik hurre
bidekoari beha hausnarka
ez dakit zer neukan gogoan

artean ez ohartzeko
euliak behiaren begian bezala

hori eman zidan ibilaldiak
apunte bat besterik ez
bere horretan utzia geroztik
euliak behiaren begian bezala
garatu ahal izan ez dudan
gogoetaren baten zati
euliak behiaren begian bezala

ez dakit inon irakurria
edo inori entzuna ote nuen
dakidan bakarra da
gelditu egin nintzela
orain paper honetan bezala
txarrantxatik hurre
euliak behiaren begian bezala

ALMIRANTEAREN ITZAL LUZEA

injustiziaren bat komentatuko genuen
beste bat
okendoren estatuaren ondotik pasatzerakoan
aspaldiko kontua da ikasleak ginen eta sentiberak
gazteak ginen ikasle baino lehen

injustiziaren bat komentatuko genuen
zer bestela
hemen eta edonon
halako amorruak hartu zuen laguna
ostikoz jo baitzuen hementxe uso bat
uso bat ostikoz
gazteak ginen eta sentiberak
poetak ginen gazte baino lehen

hamar metro urrunago jausi zen udal panpina
dantzari baldar
almirantearen itzal luzearen hobian

horixe akordura hemendik pasatzen naizen aldiro

aspaldiko kontua dela
gutiago amorratzen garela orain
injustiziak gero eta handiagoak diren arren

usoak adibidez, usoak munduko enparantzetan
usoak historia panpinatzen

eta orain poetek ez dakitela zer egin oinekin

TOLOSA

hor dator naro garona
malenkonia sakona
zeinen gerizpe eztia zaidan
carriera zaharrona

capitoleko arkupe
egunonak musutruke
kafea hotza solasa bero
artistek bilera dute

ez badira bizikletan
gazteak pozik hizketan
mundu hobe bat sortu beharrez
beti elkar heziketan

saint serninen gaur feria
asteroko lanteria
liburu jantzi gazta odolki
laketzeko bezeria

arnaud-bernard larrainean

zabor kartoien gainean
dolce&gabanna luxury uhalak
laurdenaren ordainean

oc berbak noiz du uztaro
esperoan da luzaro
ô mon païs hasperen eginik
paristarra da nougaro

azalak zor du mamia
hau ez da okzitania
felibre jaunen lore jokoek
urri zuten legamia

trobador eta trobairitz
ai erdi aroan banintz
haien kantua ikasi eta
koplatzearren zenbait hitz

zabaldegiak ipuru
haxeleemen inguru
zalantza egin lezake batek
tolosa den hiriburu

zentrotik urrun zitea
ardura beltz albistea
berezkoa du bazterkeriak
noiztenka sua piztea

hiru mila ukamilo
arte sozio eta filo
faketako ikasleak gogor
askatzen bost korapilo

anarkismoa lubaki
gizon xaharrok temati
urtetxo batzuk kendu ezkero
lirateke berriz maki

adreilu hiri arrosa
tolosak hala du hotsa
askatasuna gaintzat hartzeko
hemen ez da inor lotsa

ILARGIAREN ALDE

ilargi betea zertaz betea
nekatu egin nintzen
zergatik izan behar dituk porrot pertsonalak
ugertzen diren iraultza guztiak?
jesarri egin nintzen
neure buruarekin bat egin nezala behingoz
neukan oihuka karrika
oroitzen hasi nintzen
horrela jo nuen
ilargiaren alde iluna

ilargi betea zertaz betea
aspertu egin nintzen
bai noski zuhurrago biziko ginateke
adagioaren gisako gauzak asmatu izan ez balira
altxatu egin nintzen
non nintzen ez baneki lez
ahosoinuaren hotsa iritsi zitzaidan lanbroan barrena
pentsatzen jarri nintzen
horrela jo nuen
ilargiaren alde iluna

ilargi betea zertaz betea
nardatu egin nintzen
hein batean, pentsatu nuen
bat ez da inoiz bedera inor ez liteke izan norbera
ibili egin nintzen
errainu diskretu baten antzera
florentziarik ez dakien neoligarkiaren piramideetan
galdu egin nintzen
horrela jo nuen
ilargiaren alde iluna

ilargi betea zertaz betea
beldurtu egin nintzen
munduaren azkena berriz geroratzea
erabaki zutela entzun nuen saihetsean
itzuli egin nintzen
sumindu egin nintzen
suminduran heldu zen nintzenaren oroia
alkandoratik noizbait eten zitzaidan ezpel zuriko
botoia
bat ezin egin batean leiala eta etoia
horrela jo nuen
ilargiaren alde iluna

ilargi betea zauriz betea
troxetan bildutako buru errea
horrela jo nuen
ilargiaren alde iluna

ilargiaren alde iluna
lurra da

lurra, teleskopioz babesten dugun beldurra

GOLGOTA

horrela ibili naiz, ama
eskua bete iltze oker akastu herdoildu
ukabilean tinko bildurik

elizako atea jo dut banoki
ukabilarekin bitan hirutan
hauek ez dira laneko orduak
jainkoak ere komenioa dauka sinatua
bere patronalarekin

menturaz beilategian zure gorpuaren gainean
eduki nahi izanen zenukeen
oheburuko paretatik jaitsita astero
distira ateratzen zenion
letoizko kristo hura
kristo gurutziltzatua bai kendu dut
oraino aditzera ematen duten zure begien goibela
ikus ez dezan bere buru makurtutik
ikus ez dezan zure aurpegi hilduratua
noizbait kendu ahal izan dut
eta azken gurutzearen azken iltzea kendu dut

zure gelako pareta tormentatutik
kristo masosadiko horren zigilu higuina
eta ez didazu haserre egin ahal izan, ama
lasai abiatu naiz gero
elizara joan naiz
esku barruan daramadana bere museoan uzteko
eta alferrik jo dut itxia dago

zabal ezak eskua esan dit fakirrak
eta eskua ez da zabaldu
ez dituk tresna onak esan dit hala ere
inor ez liteke bizi horien gainean

zer edo zer egin beharra daukak
esan dit bere turbante dotoretik despedidan
eskua moztu nahiko diate
froga horiek nola bildu dituan jakiten badute

bertan geratu dira gurutzeari atxikiak
etxeko paretetan zeneuzkan gurutzeetako kristo
guztiak
esku-hanketako iltzeak kendutakoan
zein bere gurutzean dira geratu
ez odol tantarik ez esker onik

urratu berrien eske
gero hondarkindegi selektibora eramanen dudan
zur gisu letoi brontzezko metatxo eklektikoa
konposatuz

naramanak naramala
erauzi ahal izan ditut bederenik
etzan izan ninduzun zorrozkeria horiek
begien argia xurgatzen zizuten herdoil horiek

ARTOLA BULEBARREAN

nik hi ikusten haut ordea esan dit
noiztik elkar ikusi gabe esan diodanean
dotore azaltzen naizela egunkarietan
zer daukadan orain esku artean
ez haiz batere aldatu hi bai
hemen bizi den galdetu diot azkenik
hitzaldi batera datorrela
aitortu dit artolak irribarrez

klaseen artekoan eta ondokoan
neska batzuekin biltzen ginen
tren txikiko geltokian
ogitartekoak jan bitartean
atertu gabe hitz eginez
bera zen lotsatiena
ez zen ongi moldatzen erdaraz
baina mago bat zen
eskuak sakeletarik ateratzen zituen bakanetan
triku txiki bat adibidez
artolak triku txiki bat dauka eskuan!
egin du oihu maitanek alai

eta artolarengana batuta
gaztainoskol zabaldu bat ikusi dugu
eta mutiloi begietara artolak
zuek ba al dakizue zer den morkotsa
morkotsa zer den ba al dakizue?
edo kakalardoa adibidez
neskak izutuarena egiten
kolkotik behera sartuko dien
eta artola geldirik
neskak berriz hurbildu arte
orduan putz egin dio
kakalardoa hankaz gora geratu da
urdin zoragarria dauka iztertxokoetan
azalaren beltz distiratsuaren gainean
hori zu zara, biluzik
artolak maritereri
askeroso! esan du neskak
gezurra zen, zoragarria zen
maritere biluzik artolaren eskuan

orduan ez zuen biluzik esan
larrugorritan esan zuen artolak
baina orain
biluzik esanen lukeela uste dut

pentsatu behar izan gabe solasten da
zekienetik ikasitakora
poz handia hartu dut
karrika eraikitzen ari baserritarra
arkitektura ikasi zuen
kontratista izateko jaioak
baina literatura du maite
ez omen da inkonpatiblea
beha ezak hau esan dit
behi gorotzik ez espaloietan
zakurrek zaunkarik ez
zuhaitzak garaiz kimatuak
azelgak begonien ondoan
zer uste dute hauek!
guk badakigu goialde horietan
hogeigarren solairuaren gaineko hartan ere
belarra hazi dela teilen artean

eskua tinkatu diogu elkarri
afariren bat antolatu behar dugula
edo antzekorik aipatzeke
despeditu gara hurrena arte
hurren bat egon behar duelakoan

HABIA

haziren batetik sortuko zen noski
azal erko adar oker
entziklopedia botanikak ez dio sarrerarik eman
landare berezia da inondik ere

begiramenez kimatzen dut
osasuntsu nahi nuke beti
su egur ona egiten du
inor edo beste izutzeko erre indarrekoa

alegeragoa ageri da mendebalak zafratu ostean
zenbait kanturen akordua gordetzen du altzoan
zainak luze eta enborra malgu
susmoa hartua nago ez dudala zurruntzen ikusiko

aski du eguzki printzarik lotsorrena
izerdia irakiten jartzeko
komeni baino goizago loratzen da
ondikotz
hotzaldi atzeratuek zapuztu egiten dute beti

euriaren zarpaila
jausitako petaloak hondatzen
emanen du fruiturik halako batean

gerizpe gozoa
azalean marka ugari
geziak zauritutako bihotzik ere bai

ez da hosto iraunkorrekoa
urtero berritzen da
eta halaz ere
eta halaz guztiz ere
badauzka orritxo egoskor batzuk
korronte artistiko bortitzenek ezin eraitsiak

landare arrunta da oso baina
ez da lerratzen ez da lerrotzen baditu bere zerak

PARKE BATEAN

horra francoren zakurrak
ez ordea belauniko
horra francoren zakurrak
barne beltzeko lapurrak
jauregian atariko

horra francoren zakurrak
amak miaztu gabeak
horra francoren zakurrak
gorrotoz heze muturrak
maite zituen jabeak

horra francoren zakurrak
atzapar eta letagin
horra francoren zakurrak
ez dira kontu apurrak
gordin daukat zenbait samin

horra francoren zakurrak
esana zorrotz beteak
horra francoren zakurrak

tenteak eta makurrak
makurrak eta tenteak

horra francoren zakurrak
bestela ikasten zaunka
horra francoren zakurrak
lan isileko maltzurrak
bidezko guztien aurka

horra francoren zakurrak
aroen gain lizunen gain
horra francoren zakurrak
ez dira zakur uzkurrak
agindu baten daude zain

horra francoren zakurrak
gure zantzua usnaka
horra francoren zakurrak
gose luzeko ñapurrak
gibel minduok urraka

horra francoren zakurrak
beti lotu beti eten
horra francoren zakurrak

zer hotzikara samurrak
parke batean aieten

* * *

horra beltxarga uretan
hezur bakearen zati
horra beltxarga uretan
karez apaindu lumetan
ez dakienak zer daki

horra beltxarga uretan
horra edertasun hutsa
horra beltxarga uretan
horra ni neu maluretan
francoren zakurren putza

Arbola zutik geratu zen. Ez zuten arbola suntsitu, inguru guztia suntsitu zuten haiek. Eta mundu zintzoak errazago irents zezan arbolatarrak berak izan zirela suntsitzaile, arbolaren ondoko Junta Etxea ere zutik utzi zuten, eskuliburu eta entziklopedia guztietan euskal herritarrontzat sakratua omen zen hura, libreak omen gineneko tenplo zibila.

Mapa onak zeuzkaten Heinkel 111 eta Junker 52ko pilotuek. Euskaldunek nahi zuten askatasunaren ikurra salbatu zen hondamenditik. Faxismoari aurka egiten zion herriaren ikurra errespetatu zuen faxismoak. Espainia beltzenari gorrotagarriena zitzaion huraxe utzi zuten bizirik. Ez zen halabeharra, Gernikaren bonbaketa era planifikatuan egin zen: familia faxisten etxeekin batera, egun hartan itzal ematen ahal zuten paretak Junta Etxearenak ziren. Ez zioten su eman Arbolari. Ez zuten suntsitu, beste suntsimendu baterako behar zutelako. Espainiak behar gintuen.

Zinez suntsitu, berreraiki zigutenean suntsitu zuten Gernika: ez gintuzten utzi geure hondakin ketuen artean erdi hilik, ezin izan genuen zerotik berriro hasi, hegazkinen hondotik harginak igorri zizkiguten.

Etsaiak hondatua, etsaiak jaso zigun. Erraustu zutena berritu ziguten ostera, erraustu gabe utzi zigutenarekin batera.

Gerraondo bat inposatu zitzaigun, beren legera baketu gintuzten, gure ikur nagusia eta guzti jaso ziguten ostera Gernika, amets egin ez genezan inoiz libre izan ginela, han bertan baikeneukan askatasunaren landarea. Arbola Santua eta guzti egin zigutenez, perbersoa izan zen berreraikuntza. Arbola hura ez zen jadanik sakratua. Arbola barkatua zen. Gure mitoa errespetatuz, mitorik gabe utzi gintuzten. Heriotzaren zigorraren duin ez litzatekeen kriminal mesprezatuaren antzera, gure mito apalak ez zuen behar adina indar izan etsaiak erraustu behar izan zezan.

Eta gure derrotaren protagonista gu ez ginela ohar gintezen baino lehen, koadro bat egin zuen hogeigarren mendeak eman duen artistarik iraultzaileenak. Man Rayk bere filmeari bezala, euskarazko izena ezarri zion, eta euskaldunok uste izan genuen gutaz ari zela. Man Rayk surrealismoa egin zuen sagarrekin, torlojuekin eta gure hizkuntzarekin. Picassok espainiartasuna egin zuen postkubismoz jantzitako gure suntsimenduarekin. Koadro hartan Espainiari berreskuratu zion Euskal Herria, koadro hark bilaka-

tzen zuen gure hondamena Espainiaren patrimonio. Guk, ordea, buruz ikasi genuen, paretetan kopiatu, klandestinitatean inprimatu, marko garestitan ezarri, bulegotan eskegi, omenalditan oparitu, pirograbatuan errepikatu, harrian zizelkatu, paper matxen moldatu...

Francoren oposizioak esaten zigun nolakoa izan behar zuen gure arteak, eta guk sinetsi egin genuen unibertsaltasuna ematen zigula: koloreztatu genion txori bat orratz moduan erabiltzeko, kendu genion zaldi burua irrintzi egin zezan, literaturaren iduri egin genuen paper bildua eusten duen eskua... eta oraindik orain kriseilua ezarri dugu gure presoen senideen erakundearen ikusgarri. Guk geuk ikonografia bat sortu izan ez bagenu bezala, edo gure artistek sortutakoa aintzakotzat hartzekoa ez balitz bezala. Harginen ondotik artistak eskaini dizkigu Espainiak. Heinkel 111 eta Junker 52en lanaren ondoren Heinkel 51ek metrailatu gintuzten ihes gindoazenok.

Esaten ahal dugu gure historia hurbilaren une larrienetako batean gurea izan zela Picassoren koadroa. New Yorken zegoelarik, sobera unibertsala zelarik, sartzen ahal ginen geu ere haren jabeen artean. Gure patrimonio moralaren zatia zen, nolabait ere.

Baina Espainiak demokratikotasunaren estatusa lortu duen heinean gero eta ez-gureagoa bilakatu da. Espainiako espainiarrek Picasso maitatzeko eskubidea eskuratu dute.

Espainian daude espainiar guztiak egun, Espainiak ez du exiliorik. Berea dute oso orain inoiz apur bat gurea izan zen irudia. Eta menturaz utziko digute Bilbon erakuts dezagun aldi batez. Nora ez dakizunean, izuak zoratu zaituenean, bonbek eginiko zuloetan egiten duzu jauzi ustez eta babestuko zaituzten. Iduri luke Guernica ez dela Picassok Francori eginiko opari bat besterik.

Horrela jarraitzen du gure suntsimenduak.

(Gernikaren zinezko suntsimendua.
Argia, 1997-VI-15)

TREN ORDUTEGIA

arratsaldeko seiak eta laurdenetan
esku artekoa bertan utzita
leihora hurbiltzen naiz egunero
gure atzeko etxadiaren lorategiko magnolian
magrebeko gazteen solasak bezain entzungarri
txirulatzen duen birigarroaren kantua entzuteko

dirección general
del
instituto geográfico y estadístico

trenaren apeaderoan dira biltzen
solas egiten dute erre egiten dute denek egiten dute
tu gure zementuzko zoru aratzera
udaltzainak noiz azalduko egoten dira
gure errua egiten duzue beti esan ahal izateko
larrialdiko gaztelaniaz harroxko

arratsaldeko seiak eta laurden magnoliaren bat
edo lorategiko beste edozein zuhaitz
birigarro arra kantari

lehengusua kartzelan neskak urrun tabakoa garesti
lur hau, horrelaxe, lur hau
gustatzen ez bazaizu badakizu zer egin
udaltzain gazteak harroaldiko gaztelaniaz tu
edozein tren apeaderotan magrebeko gazteei
begitartera

altura sobre el nivel medio
del
mediterráneo en alicante
6’3 m

emanaldi bakoitza egiten zait berezia
hogeita gehiago doinu sumatu dizkiot
melodia edozein armoniatan abandonatuta
haizatzen da koadroaren bukolikotasuna hautsiz
ez, ez du emearen deira egiten alde
lerro lardastuak abandonatuz
leihoan azaltzen den zelatariak adierazten dio
lorategiko zuhaitza delikatuegia dela birigarroentzat

AUSAZ EGUZKIAK

euria egin zuen ostera
eta hitz batzuk eskatu zizkidaten
poztu egin nintzen
nire hitzak leku publikoa merezirik
idatzi egin nuen

euria egin zuen ostera
eta hitz batzuk eskatu zizkidaten
aurrekoan idatzia nintzenez
erraz eginen nuela usteko zuten
idatzi egin nuen

euria egin zuen ostera
eta hitz batzuk eskatu zizkidaten
euria nire liburuetako gaia bihurtua zen arren
hartarako hitzak nahi zituzten noski, berariazkoak
idatzi egin nuen
eguzkia proxeneta bat zaidalako

euria egin zuen ostera
eta hitz batzuk eskatu zizkidaten

hala zuen izena kantari gazte batek
nire testuekin
egin berria zuen abesti ezagunak, euria

horretarik atera nuen testu hura ez zela ona
bestelako hitzak behar zituela jendeak
ez goiz eta berandu ahotan zeukaten kantuarenak

idatzi egin nuen
etxeko itoginek eztanda hotsak ateratzen zituztela

euria egin zuen ostera
eta hitz batzuk eskatu zizkidaten
pikutara bidaltzeko gogoak hartu ninduen
musikaren soberak gortu zuen beethoven

baina idatzi egin nuen
alderatze hark —gezurra izateaz beste— ahalkez
urtuta:
euriaren soberak gintuen ekarriak egoera hartara

atertu egin zuen
urpetik azaldu ziren plazak zubiak karrikak
itotakoak

eta sinadura eskatu zidaten
beste askorena ageri zuen idatzi baten azpirako

ez, ez naiz bizi euriaren zain
alkandora zabal bularra ile
urrezko kateak erakusten dituen
proxeneta zait eguzkia
baina ez naiz bizi euriaren zain

bustiak bestelako distira dauka orain
eta nork daki, ausaz eguzkiak ez gaitu inoiz bustiko

DONOSTIA

gortearen udaleku
hiritasuna debeku
kupido motzen joek daukate
sebastian zerutik gertu

erreginaren hondartza
garbia eta apatza
noiz hankapeko noiz eskupeko
alaiki easok dantza

hodei beltzetan durunda
bentazikinen sutunpa
bilintx hil dute bilintx hil dute
leihorik leiho entzun da

hareazko jauregiak
maite ditu haurreriak
herria hitza ama arbola
barrutasun geuregiak

haizeak dakar hazia

haizeak dakar gazia
haizeak zakar ekarri zuen
larrazabalgo ikasia

errekaldean lizarra
hari begira izarra
bere burua eskuratzea
euskaldunaren liskarra

hondar zuriz lau gabarra
urki zuriz bulebarra
sekretak denoi pausoak hartzen
iluna ilunabarra

martuteneren mospela
kaletik urrun orbela
gaiztoak diren onenek nonbait
etorri behar hobera

arkitektura idorrak
ezain bezain ezilkorrak
plano guztien gainetik zuzen
lurrezko bidezidorrak

perla polit biribila
dendarien hiri hila
ederrera iritsi ezin den
guztiaren faksimila

izar zaharrak ortzean
bakoitza bere bostean
hiriak hiri izaten dira
nortasun bat adostean

hondartza beti ospean
berririk ez donostean
madril txikia pozik bizi da
postal txatxuen ostean

amarako barrikada
pariseko karrika da
gau edo egun hots egizue
zatarron beharrik bada

MAITAZORO

larrian edo gezurrean etortzen banaiz
bera dut gerizpea
burua neke mututu banaiz
bera dut askatu nauen berba
gozo zoro maitasoro
ezpain erreok hezetu dituen iruntza

zakurraren salara bidali izan dudan arren
pazientziaz milikatu ditu
ezagutzen ez nituen neure bazterñoak
xuxurlaz eta txilioz egina da
gozo zoro maitasoro
lotzen gaituen estekaren zuntza

atsegintasunik eman ez diodanean ere
larrutan besterik egin ez diodanean ere
ordainik gabe eskaini izan dit
hil ala biziko jokoan
gozo zoro maitasoro
bere biluzi beroaren oturuntza

jelostu plantak egin izan dizkit
berba hezeak asmatuz esaldi zentzubeteak
hanpatu egiten nau
niretzat hiltzen eta pizten da guztiz
gozo zoro maitasoro
aldiari leialeko huntza

oinarrizko legeak zehartuz
zorrotzeneko arauak apurtuz
ohikotasun jatorrak baztertuz
gozo zoro maitasoro
bihurtu izan du bide
trabatzen ninduen iluntza

jakinaren gainean ez banengo bezala
eman izan didate beraren berri
patux arlote motz axola zait bost
hazi egiten nau gainez eragiten
zenbatenaz lokatzago dut hanbatenaz aratzago
bere kausaren gerlaria naiz bera da
gozo zoro maitasoro
eraiki nauen ororen funtsa

maitemindua bi mila urte

hiru mila urte eduki dut maitemindua
arte guztiak ikasten sortuko nintzenerako
limurtasun guztiak nire egarrira isurtzeko irritsean
iraun du bost mila urte zain
gozo zoro maitasoro
haragian haragi odolean odol da
gogait eragiteraino neure
hizkuntza

HAUTAKRITIKA BATERAKO ZIRRIBORROA

izan ninteke larru latzeko lanbroa
izan ninteke labe hotzeko eguzkia
izan ninteke tristuran sartutako meatzaria
izan ninteke ahoa salduko ez duen prostituta
izan ninteke belearen mokorako kondarra
izan ninteke errurik ez daukan aitzakia
izan ninteke nire amak balekiko umezurtza
izan ninteke eskubiderik gabeko zoriontsua
izan ninteke apaingarrizko eztula
izan ninteke bietarik uztartzen ez den idia
izan ninteke lo galduko nagia
izan ninteke balezakeen elbarria
izan ninteke hanka bat saldutako bidekoa
izan ninteke bere neurriak hartzen ez dakien
zurgina
izan ninteke ateri nahi ez lukeen bustia
izan ninteke goragoko gogorik ez daukan narrastia
izan ninteke behiek zer hausnartzen duten
ez dakien harakina
izan ninteke zertara behartuko duzuen

badakien managaitza
izan ninteke besterik behar ez duen eskekoa
izan ninteke eskeko herritarra
izan nahi ez duen herritarra
izan ninteke erretzen ez duen ikazkina
izan ninteke uso pausoko gerlaria
izan ninteke handiagokoak ahantzitako zartatua
izan ninteke zer esanik ez dagoenean
isiltzen ez dakien marmarra
izan ninteke hilobira kexatu gabe ezin duen ilintia
izan ninteke irratiak itzalitako musikaria
izan ninteke gurasoak alderdikoak ez zituen
bizkaitarra
izan ninteke ardoa ematurik
zauria sendatzen ez zaion oinazea
izan ninteke oinperatuak erruki dituen internauta
izan ninteke errukiak min ematen duela
ikasia den burdina
izan ninteke perla baino perla barruko
hondarra izan nahi duen alea
izan ninteke harri honek hartan edo hontan
iraun dezan nahi ez duen olerkaria
izan ninteke aljeriarrari ez dela frantsesa
esaten dion inozoa

izan ninteke saharararrari bera ere sahararra dela esaten dion sahatsa
izan ninteke irlandarra izan nahi ez lukeen abertzalea
izan ninteke
izan ninteke
izan ninteke hegan urgun dagien ameslaria
izan ninteke urrun bizi den etxekoia
izan ninteke erraz apurtzeko atalaga
izan ninteke iraultzailea izateko txipiegia den burgesa
izan ninteke musutrukeko maitalea
izan ninteke auzolotsa izaten duen auzotarra
izan ninteke pankarta ostean harrotzen ez den sumindua
izan ninteke kontzientzia onek ahanzten duten zera
izan ninteke ordu txikietako baikorra
izan ninteke enbor gainetik jaitsi nahi ez duen garaitua
izan ninteke bere hizkuntza maite duen totela
izan ninteke hotzarena kendu behar zaion igarlea
izan ninteke argia pizturik uzten duen eztabaidazalea
izan ninteke ohea irakurtzeko ere behar duen

ezjakina
izan ninteke su oneko albistea
izan ninteke zure onera etorritako okerra
izan ninteke ikasi nahi ez duena dakien makilatua
izan ninteke gazitarako balio ez duen haragia
izan ninteke egun argitan galdutako sonanbulua
izan ninteke egunean eguneko zergaduna
izan ninteke egunero erortzen den mozorroa
izan ninteke beti ez dela egun izanen uste duen
ezkorra
izan ninteke ikusi ala ez ikusiko kea
izan ninteke eguzkia noraezeko zapia
izan ninteke ametsetan lo hartzen ez duen liluratua
izan ninteke hankak zuritu gabeko iheslaria
izan ninteke aberastasun bakarra daukan
konformista
izan ninteke new yorken izan ez den mundutarra
izan ninteke sakelan atlas bat daraman baserritarra
izan ninteke zaindu hadi esanen ez duen adiskidea
izan ninteke izarrak baino hondarrak
ugariagoak direla uste duen idealista
izan ninteke bihotzak irteerak badituela
uste duen mindua
izan ninteke linterna matxuratuak maite dituen

filosofoa
izan ninteke dena suntsitutakoan zer edo zer azalduko dela uste duen zomorroa
izan ninteke
izan ninteke
izan ninteke ganbarara igo gabeko teilagina
izan ninteke bidezkoa oteko bitartekaria
izan ninteke ote arteko sasia
izan ninteke loreek larrututako laharra
izan ninteke bere neurriko zapata behar duen oinezkoa
izan ninteke tu egiten duen guztia karkaxa ez duen malderra
izan ninteke urkaberako balio ez duen haizea
izan ninteke burua geroko lepotik daukan salatua
izan ninteke ospel bereko zigortua
izan ninteke aldez aurretiko ezkerrekoa
izan ninteke euriari zein hodeitarik galdetzen ez dion bertakoa
izan ninteke apatridaren aberriko hauteslea
izan ninteke sardea satsetik atera ezinik ari den teorikoa
izan ninteke paperik behar ez duen hitza
izan ninteke ipuinez bete zuten kalabaza

izan ninteke isiltzen dudan zerbait
izan ninteke epelean hoztutako gizonezkoa
izan ninteke urrea urruneko bilatzailea
izan ninteke odola ultzeratik doakion emailea
izan ninteke erromako zubitik doan itzaina
izan ninteke vietnamita bat
ohean gordea daukan mutilzaharra
izan ninteke lehenik egin eta gero
ezpentsatu egiten duen zuhurra
izan ninteke kolkoa bete asuneko sendalaria
izan ninteke jo beharreko atean
ikaratu egiten den mezularia
izan ninteke laurdenak oso dituen zatikatua
izan ninteke breizen breiztarrak nagusi
kantatzen duen marrantatua
izan ninteke inoren muina
hurrupatu nahi ez duen iritziduna
izan ninteke izotz ondoko eguzkia ahula zaion
izerditua
izan ninteke izerdia sekretuz betea dela
entzun duen forjaria
izan ninteke haizeari oldartzen zaion hostoa
izan ninteke bere malenkoniaren gauza badakien
sentibera

izan ninteke bere ahotik jan behar duen mutua
izan ninteke halabeharrak huts egindakoa
izan ninteke saihetseko elorria ezin kenduko
hedonista
izan ninteke askoren antzeko berezia
izan ninteke
izan ninteke
izan ninteke euliak ostiko emandako usteduna
izan ninteke egiak sinesten ez dituen galdetzailea
izan ninteke beste belarritik jalgitako esana
izan ninteke hitzak galdutako leiala
izan ninteke gatz erdiko kamikazea
izan ninteke bere bizitza aldatu ezinik
gizartea aldatu nahi lukeen hilotza
izan ninteke uhartez uharteko uhina
izan ninteke komunztadura arazo hau
demokraziak ekarri dion gramatikaria
izan ninteke ontzia betea delako edatailea
izan ninteke lantegietako esklaboekin batera
jaikiko den bulegaria
izan ninteke ibaietara nahi ez duen ontzia
izan ninteke bere mugatasunean
zorioneko bizi den anonimoa
izan ninteke basoa itsaso eta itsasoa baso

bihurtuko dela oroitzen den irakurlea
izan ninteke hamaika euskal herrietarik zein den
zinezkoa ez dakien antropologoa
izan ninteke non bizi den esan ezin duen maizterra
izan ninteke ozarrez nahasiko arrazoia
izan ninteke ausiki egiten ez dakien auzikaria
izan ninteke kendutakoan mina daukan harrobia
izan ninteke borroka bat galduta gerra osoa
galtzen hasten dela uste duen
sindikalista
izan ninteke gustuko ordokirik ez daukan ibiltaria
izan ninteke harriak bakean uzteko eskubidea
daukala
esaten dizuen legeostekoa
izan ninteke motzondoa moztera ez datorren azkarra
izan ninteke makurra makurtuko ez duen motela
izan ninteke dena gezurreko kontalaria
izan ninteke gazterik zahartu ez zuten hezia
izan ninteke isilik dakien eta hizketan dakien
lekukoa
izan ninteke aldi galduak ardura ez dion presatua
izan ninteke larrua oso ez daukan heldua
izan ninteke amak musu kopetan emandako haurra
izan ninteke behaztopatzen ez duen harria

izan ninteke lur santurik aitortzen ez duen erromesa
izan ninteke artean onik ezineko dohakabea
izan ninteke etorkizunak bidea ez dakiela
dakien kantoniera
izan ninteke kamera geldoan ikusi nuen
besarkada hartako etxeratua
izan ninteke oiloluma eskuan hartuko ez duen
idazlea
izan ninteke
izan ninteke
izan ninteke igitaia garitan probatzen ez duen
jornalaria
izan ninteke bidebieta eta ategorrieta artean
ibilitako zalantzatia
izan ninteke arrapostu askoren galdera asmatzeko
gauza ez den entzulea
izan ninteke loreak ardia jan lezakeela
jan lezakeen printzea
izan ninteke oraingoan hautsi eta
hurrengoan jausiko den hauskorra
izan ninteke otoitza baino ortotsa nahiago duen
abadea
izan ninteke galduz iristen den mandataria
izan ninteke sortu bako uretan bustitako gabarraria

izan ninteke ukabilak sakeletan gordetzen dituen mendekatzailea
izan ninteke ezinik badaukan eskuduna
izan ninteke harramazka egiten duen portzelanazko katua
izan ninteke zurian beltzeko petrala
izan ninteke harian ezagun den zauria
izan ninteke azpikontratako garuna
izan ninteke iturengo arrotza
izan ninteke bere gaiztotik aterako ez duzuen onbera
izan ninteke eskaileretan behera itsasora iritsi den menditarra
izan ninteke taupadak pausoekin batera doazkion abokatua
izan ninteke orbela trena geldiarazten ikusi duen gidaria
izan ninteke urak eramandako hitzak aterpetzen dituen errota
izan ninteke dantzan ez dakien zuberotarra
izan ninteke lanari lotua gauaren sorgina luzatzen duen zulatzailea
izan ninteke zozo batek kantari jartzen duen zozoa

izan ninteke harrizkoa ez den orri bateko izena
izan ninteke auzoko ezkila ere entzuten duen bakartia
izan ninteke berriz damutuko zaidan asaldatua
izan ninteke esaten duena guztiz sinesten ez duen egiatia
izan ninteke leihotik euromisilak festan ikusten dituen beduinoa
izan ninteke hodeietaraino hazitako zuhaitzik ikusi ez duen basozaina
izan ninteke jator askoa edo harjoa
izan ninteke bezperako ogia ere jaten duen soldatapekoa
izan ninteke zer emana ematen duen behartsua
izan ninteke onenak emanen ez dituen doilorra
izan ninteke prentsako argazkitan bakarrik azaldutako askoren laguna
izan ninteke
izan ninteke
izan ninteke ikusi batean ikusten ez den nabarmena
izan ninteke oraingoak oraingo pazientziaduna
izan ninteke ogirik ezean artorik nahi ez duen posibilista
izan ninteke gose grebarik egin gabeko

morroilopekoa
izan ninteke txoroen atsegineko maisua
izan ninteke kea garra baino
gorago nahi ez lukeen harroa
izan ninteke aditz guztiak jokatzen ez dituen
alfabetatua
izan ninteke hemen ez banengoko hauxe bera
izan ninteke dena baino denagoa den zatia
izan ninteke uhinen araberakoa nahi ez duen
hondartza
izan ninteke itsura hobekoa
izan ninteke dekoratua hobetu nahi izan duen xaloa
izan ninteke zakurraren putza esaten duen hiritarra
izan ninteke heste laburreko jatuna
izan ninteke zerutiarrak ez diren
gorputzak maite dituen metafisikoa
izan ninteke bere aburuarekin
zakarrizketan diharduen haizea
izan ninteke gauza ez izateko gauza
izan ninteke babak eltzean sartzen dituen ergela
izan ninteke zaborretan bilatzen duen kimikari
lirikoa
izan ninteke politikari irtenbideren bat
bilatzen dion zaborketaria

izan ninteke ez bururik ez buztinik daukan ikustekoa
izan ninteke buru bat eskas duen lepoa
izan ninteke preziorik gabeko ondasunen tratularia
izan ninteke mirua zuritzen duen ekonomialaria
izan ninteke hitzak janzteko ez dagoen kritikaria
izan ninteke ezbeharrean sortutakoa
izan ninteke behakoa beste nonbait daukan zelataria
izan ninteke zer ikusia egiten duen ezaguna
izan ninteke gibela behar duen aurrerazalea
izan ninteke balantza aldera erortzen ez den
egoskorra
izan ninteke uzten didazuenerainoko zabala
izan ninteke ahal duen neurriko adostezina
izan ninteke besterik ez dakielako halakoxea
izan ninteke ni hau edo hura naiz
esaten ausartzen ez den poeta
izan ninteke barrugorritan egindako aitortza
ez daukat beste aukerarik
izan nintekeen hauteslea naiz

MIKEL LABOA KARRIKA

Xume leun mehe dira hitzak
ahoaren gitarran
zainak dardaran jarri dituzte baina
zainak eta harraskako eltzea
eta arasako motrailua eta lanpara guztiak

kantu sotil bat besterik ez

labea plantxa kafetera izozkailua
baxera garbitzekoa
hiru irratiak telebista bera
dardaran
ikaran
sutan
hasi dira urtzen
telebista bera eta uraren kanila guztiak
ateen altzairuzko sarrailak letoizko heldulekuak
sakelako telefonoak giltzak alabaren ordenagailua
eta igogailua, igogailua ere bai

kantu xume leun mehea besterik ez
gitarraren ahoan
gure oinarriak dardaran jarri ditu baina
etxea Woodstock zelaia bihurtuz

iturengo ahotsa besterik ez

farolak brontzezko estatua bizikletak
ordulari-termometro elektronikoa
autoak semaforoak motoak
dardaran
ikaran
sutan
hasi dira urtzen
gaztelu zaharreko kanoi itsuak
hemeretzigarren mendeko iturriak berak
parkimetroak gure lehen autobus ekologikoa
eta bideokamerak, bideokamerak ere bai

xume leun meheak dira hitzak
memoriaren ozengailuan
baina izutu egin dute karrika
hiri urtu hau jaialdi bihurtuz

donostiako arotza besterik ez
ihauterian dakartzala joaldunak

Atzean eta atzenduak gelditu dira, zorionez, harriak eta burdinak euskaraz mintzo omen zireneko garaiak. Behialako gure eskultoreen deklarazio beldurgarri haiek bere onera ekarri ditu, besteak beste, literaturarik narrasenak: neure egiten dut oraindik orain Itxaro Bordak bota algara tristea gasna marka baten publizitatea gogoan, «les fromages qui parlent basque»... Badakit Chillidak maite duela euskara eta, beste artista txepel batzuek ez bezala, euskara ikasiz frogatu duela maitasun hori, ez gasna janez edo harriak aho eta burdinak oihu bihurtu nahian. Badakit Chillidak badakiela zer esan nahi duten gure herriko toponimoek, baita Hernanikoek ere; badakit Chillidak badakiela azken erakusketari eman nahi izan dion bakearen irudia ezin egokiago osatzen duela bere lanak paratu dituen baserriaren izenak, «Zabalaga». Ondikotz, sobera izen ederra bide zen hori, zabalegia esanen nuke, gure eskultorearen obrategia izendatzeko. Museoari Chillida-leku izen arrunt arrunta ezarri diote, edo ezarri behar izan diote, publizitatearen premiak gain hartu izan balio bezala artistaren zinezkotasunari.

Izan liteke ordea bakearen irudi poliziez, manifestazioz, granada-jaurtitzailez eta gerla-helikopteroz inguratuta eginiko mustea? Pentsa dezagun apur bat erantzun baino lehen, pentsa dezagun Chillidak gomitaturiko pertsonaia nagusien bakea ez ote den finkatzen, izan ere, bortxakeriaz elikaturiko zapalketan. Ni sinetsia nago Espainiako erregea, adibidez, gai dela Nirvana estetikoraino iristeko espainiarrek osoro suntsitu gabeko maia herriaren monumentuak ikusiz; ez nau harritzen Chillidaren greenaren gaineko harri eta burdinen artean liluratu izana inguruko bortxakeria zantzuez abstrakzio eginik, ohitua egon behar baitu isiltasunari edo, hobe esan, ez entzuteari bakea esaten. Bera eta bere gisakoak, bakeaz eta bakearen irudiaz ari direnean, benetan ari dira nik uste, bake irudi bat delako beren bakea. Ez da halakoa nik nahi nukeena, eta ez dut laket, beraz, jaun horiek darabilten irudia. Arte lanak eta inauguraketak hartu nahi baldin baditugu bakearen sinbolo, adibide bikaina ukan genuen Hernanitik ez oso urrun, duela hilabete, Jose Luis Zumeta margolariaren erakusketa zabaltzea zela-eta, Donostiako merkatu batean.

Merkatu batean, bai, azokan, ferian, erregearen sukaldariari bezala edozein herritarri oraino artetu-

rismora makurtu gabeko baserrietako baratzeko porruak, ilarrak, azak —eta baratzerik gabeko tomateak ere!— saltzen dizkiguten leku xume eta xaharrean, gomiten premiarik gabe, ateak zabal zeudela denontzat zabalik bildu ginen estu eta izerditan artezale batzuk eta bakezale aunitz. Han ez zegoen Ibarretxerik, han ez zegoen Aznarrik, han ez zegoen Schroederrik, han ez zegoen ezein erregeren aztarrenik, ezta sagarretan ere, han denok ginen, nolabait esatearren, errezilko... Hiriko kultur zinegotziak, Ramon Etxezarretak, aurkeztu zuen ekitaldia, eta azpeitiarra dela uste duten zenbait errezildar auzokaltek ere txit ongi hartu zituzten haren hitzak, gozo aritu baitzen artearen funtzio publikoaz. Odon Elortza alkatearen hitzalditxoa entzun genuen ondoren, eta pozik gelditu ginen errezildar etxekalteok, barkatu genion publizitate apur bat egin izana azoka berriaren aitzakian, harriek, burdinek eta are gasnek baino zatiaz txukunago egin zigulako euskaraz gure erosketa ohiturez eta elikatzeko kulturaz. Gero Hilario Urbieta jauna mintzatu zitzaigun, azoka hartako dendari baten seme psikiatra, hernaniarra hain zuzen, eta umore finez aitortu zigun azokan ikasi zuela berak gehien bizitzaz, bertan egiten delako tratua, hau da, pertsonen arte-

ko adostasuna bilatzen den lekua delako Zumetak erakustokitzat hautatu zuen eremua... Horretaz gelditu ginen guztiok hausnarrean aurkezpena dotorezian amaitzeko Mikel Laboa entzuten genuelarik kantu hunkigarri batean...

Oso estilo desberdineko ekitaldiak, ikusten duzuenez. Nik ez dakit inor baden munduan, Nafarroa barne, Zumetaren pintura gustuko ez duenik, baina erratzeko beldur handirik gabe esaten ahal dut errezildar ez gutxik eta euskal herritar askok nahi dugun bakeak antz handiagoa duela azoka bateko builarekin —Zumetaren pinturak ez balitu ere—, golf zelai bateko isiltasunarekin baino, Chillidaren eskulturak edukiagatik.

(Bakearen irudi. *Egunkaria*, 2000-09-20)

LAMINACIONES DE LESACA

İdi bizkarra lurrun lamaran
hebaindua goldaketan
ekarri ohi dit gogora beti
txatarrak portuan ketan
milia luzeko neketan

nondik datorren ez dakit baina
urrundik behar du izan
halako lamaran agertzeko
nekeko idi deritzan
txondor sutuaren gisan

zer izan ote zen inoiz batez
ketan dagoen txatarra
golde noblea aizto zitala
kalteko tresna zatarra
edertu baten zuztarra

metal sendoko fiertasuna
hona heldu da zirtzila
kaian daukate zain galdatzeko

dirudiela txirbila
labe ondoko zizpila

ketan dantzari salda pindarrak
labekarien sorbaldan
ketan galdarak galdategian
hamar meta metal baldan
burdindu beharrez galdan

galdategitik dute aterako
bizi berrirako idi
ostera dadin bihur txatarra
moila gaineko sasidi
metalgintzaren agiri

bizi gurpila lanaren latza
zeinen kantagai saskarrak
nik sortu gabe niri emanak
ketan dagoen txatarrak
nekeko idi bizkarrak

URRUN HAUTATU BATETIK DATORREN JENDEA

ez petrilean jesarri zapatak askatu
eta txotxabar batekin lohia kentzen
ikusten dugulako igande eguerdian
edo hautsa harrotzen duelako bizkarrean jo ezkero
edo hitz bereziak hartzen dituelako ahotan
edo eztul zaharra dakarrelako

bestelako ñabarduretan egiten da ikusgarri
arazoak ditu atea jotzeko
errespetu handia die bere eskuei eta gure begiei
esana hausnartuz daki entzuten
barkamen eske iduri ematen du iritzia
eta iritzia sekula abiarazi ez ditugun
gogoeten emaitza egiten zaigulako zaigu ikusgarri

igande eguerdian bizkarra beti hein bat makur
petrilean ibaiari beha jesartzen den jendea
zein zaldimalditik oinezkotu den
zenbat hodeitan etzateari egin dion uko ezagun
duen

urrun hautatu batetik datorren jendea

beraiek konkortzen diren arro zikinari
geratzen naiz beha ukondoak petrilean
eta arragoa txipiak ikusten ditut sortzen basatzan
neumatiko begihustuen erdian hazitako lore
inoiz edo behin

baina ez dakit nire gogoeten pindarrak diren

ALDERDIKO GIZAKIA

Sortzez ez nintzen horrelakoa
sortzez erdi eta erdi nintzen
gizajo hutsa
eskeko aldeak jakin behar zuela
nora jotzen zuen eskerrekoak
bi erdiak elkarren zaunka
hitzak arta handiz hautatuz
tratatzen ninduten mediku guztiek
eta horrek ez zidan onik egiten egia esan

noizbait heldutasunean ausartuta
hasi nintzen izaten bihurtu naizena
ez zen samurra izan
bai ezinbestekoa
bi erdi nintzena egina naiz erdibi

algortan alduden edo alkizan
aldea dago
osoa izan ala alderdikoa izan

dena besterekin adostu beharrak

hebaindu egiten du
hobe ni neurera eta zu zeurera
bi eta bi lau
eta inork nahi banau
bi erdi ginena orain da bat
horixe duzue nire alderdi bakarra
ez naizela erdi
baizik alderdi bakarreko batasuna
eskerik eta eskerrik gabe

ongi ibili besterdi
zabiltzan aldeko edo zauden aldabeko
hala hobe eta
ez daukat aspaldi zure berri
bake ederrean bizi naiz zu gabe

algortan alduden edo alkizan
aldea dago
osoa izan ala alderdikoa izan

toles handirik ezekoa bihurtu naiz
orain ez dut hurrenekoa hartzen etsai
lasai eman eta dut hartzen
ez daukat gibelik

dena naiz aurre
aurren edo bigarren alderdia
—ez naiz alferrikako sesiotan sartuko
alde batera utzi nuenez geroztik

neure buruarekin adosteko ere
ez dut jardun behar gorriz eta gerriz
aski dut hitz erdiz
alderdi onen bat merezi du
alderdiduna denak

algortan alduden edo alkizan
aldea dago
osoa izan ala alderdikoa izan

lasai eman eta dut hartzen
ez da gezurra benaz ari naiz
alderdiko gizakia izanda
iletik azkazaleraino
zer alderdi luke
naizen alderdiak
beste alderdi bat erantsiko balidate?
neukana botatzeko botea naiz nahikoa izerdi
dena ezin bada zatia gaitzerdi

ez naiz inoiz damutuko
argi gera bedi
alderdikoa izatea dut alderdi
eta inork egin nahi badu galde
ni beti azalduko naiz
eskua luze erdiaren alde

algortan alduden edo alkizan
aldea dago
osoa izan ala alderdikoa izan

ROUEN

ibai gainean bi hodei
lantegi handiak hogei
gorri biziko arrastiriak
mila amets egiteko dei

otsailean etxe giro
ontziak senan astiro
kimika plantan sortua dute
hodei berri bat azido

etxearen hezurdura
adreilu arteko zura
hiri bakarra bitan biltzeko
penixek hautsi ur hura

gau garbiko izarlokak
zeruan geldi bi orgak
patinatzaile zoroz beteak
sena bazterreko dokak

argi printzak sagardoan

burgesak mozkin mardoan
frantsesa sustrai egina dago
vikingo hauen ahoan

atrioko karrikara
enkargu gaitzen ikara
euskarazko lehen liburua
bigarrenez argitara

profeta handien pare
para bedi etxepare
arruango katedral handian
merezia du aldare

teilarteko goroldio
nuklearreko voltio
normandiarrak euskaldunari
sagarrondoa zor dio

hostoberri sagastia
ume kezkan hegaztia
kolore hitsez egina dago
inpresionisten azpia

eguzkiaren kalparra
urregorrizko aparra
gros horlogeren talo beltzean
astiak orratz bakarra

epaia dute emana
bovary jaunarengana
gizon den batek ez lezake utz
hala dezaten engana

ibaia bete ur arrez
jende zintzoa marmarrez
presaka doan kotxe horretan
emma bovary negarrez

NORTEKO HARITZAREN GERIZPEKO GOGOETA

tamarizak aranondoak pikondoak
maite izan ditut beti
alegia luzatzeari utzi nionetik
(zeinen goitueza naizen esateko modua:
aita etxetxiki esaten zioten baserri batean jaioa zen
zapata koxkordunetan bizi izan zen ama
plateretara iristeko)

sagarrondoak hurritzak gurbitzak
maite izan ditut beti
zu apalen azpitik igarotzea gustatzen zait
hostoek ilea laztanez didatela lazten
(oraindik soildu ez naizela esateko modua)
ez ditut maite zu gaitzak
pakidermo azala daukate gehienek
eta empire state konplexu nabarmena

zu apalak maite izan ditut beti
(eskua goititu hutsaz
belauniko jarri behar izan gabe

iritsi nintekeela frutara oroitarazten didate)
eta orain maiteago
soildu ez naizela nautenez kontsolatzen
sekulako kezkatan bizi bainaiz:
zer gertatuko zait buru soila bihurtutakoan?
nola eginen diot hazka kokoteari?
nola kenduko dut belarrietako argizaria
hatz txikerrik gabe?
nola pentsatu behar dut
zapata puntetara behatu ezinik?
orduan, agian, buru soila naizenean
haritz ezki pago lizar urki platanondoak maiteko
ditut
azpitik pasatzerakoan ilerik ez daukadala
gaztigatuko ez didaten zu harroko building horiek

han artean gaitzik ez duten
zu apaleko amodioetan laketzen naiz

LEHEN MAILA OBRA ZIBILEKO LANBIDE HEZIKETAN EDO ZIENTZIA POLITIKOETAKO MASTERRA

horrela egin zen txinako harresia
ez harriz harri baizik herriz herri
buru-belarri
beso eta gerri

horrela egin zen keopseko piramidea
ez harriz harri baizik herriz herri
lepo-uztarri
gau eta gauerdi

horrela egin zen stonehengeko tenplua
ez harriz harri baizik herriz herri
joan-ekarri
euri eta aterri

horrela egin zen tenochtitlan hiriburua
ez harriz harri baizik herriz herri
gose-egarri
histu eta izerdi

horrela egin zen tonbuktuko meskita
ez harriz harri baizik herriz herri
kendu-ezarri
erna eta erdi

horrela egin zen bizkaiko golkoa
ez harriz harri baizik herriz herri
ulu-aldarri
zahar eta berri
amorragarri
berri eta berri

RH

lauda dezadan damurik gabe
jatorrizko bekatua
bizi osoko zigorra
sortzez dakargun kutsu itzala
aipamen debekatua
gure erre hatxe ezkorra

esaten dute gure zainetan
daramagula zaborra
hautsi behar den zokorra
hala ere ez du inork asmatu
gure erre hatxe ezkorra
apur egiteko borra

odol kontua balitz lagunok
erantsi zaigun lizuna
menderik mendeko lorra
besterik baina besterik dugu
gure erre hatxe ezkorra
zuhurtziaren zentzuna

bozkario merkez bete diguten
gerokoaren alorra
badakigu nola jorra
sasi kentzeko aitzur onena
gure erre hatxe ezkorra
begi argiko satorra

harriz eta orriz froga liteke
pozik egin dugu barau
ukoz dugu bete orga
ezean hezi jendea gara
horregatik zaigu arau
gure erre hatxe ezkorra

itzalaz argi egiten dugu
anitz jelosia hor da
suntsitzearren txondorra
noizbait munduak aitortuko du
gure erre hatxe ezkorra
gizadiaren altxorra

zainetan dugu sen berezia
guztizko buru jabetza
gure erre hatxe ezkorra

liluren morroi ez izateko
zantzu gaiztoen zilborra
nortu gaituen ezetza

guk agerian dugu paratzen
egia hutsen elkorra
loragabeko zozkorra
ezein baiezkok ez du beratzen
gure erre hatxe ezkorra
euskaltasun derrigorra

HONDAKINETAKO BISITARIA

Ireki egin dit noizbait
atea lekuko solastatu gara
ni hemen jaio nintzen
ni hemen bizi izan nintzen
ezagutu egin nahi nuke
orain hemen bizi den jendea
sukaldera pasarazi nau
jakin nahi nuke nola bizi litekeen inor
ni bizi izan nintzen bizitzan

noiz bizi izan nintzen hemen
galdetu dit aspaldiko kontuak
ez duzu hain zaharra ematen
horrelako solasetan abiaturik
aholkuak eman dizkiot
non ezkutatu arrisku egoeran
nola iraun zakarpean edo
esanen ez dizkizuten hitzen zain
ni bizi izan nintzen bizitzan

neure bizitzaren aztarnak
bilatu ditut sukaldeko zoruan
irrati modeloan guk ere bagenuen katuan
zein gelatan egiten nuen lo
ikusi nahi ote dudan
bere semearena edo alabarena
edo trasteena da orain gela txikia
hunkitu egin naiz beti bezain
larri dudala arnasa

bere bizitza ireki dit
ezin du esan zorioneko denik
nork ez du izan haurtzaroren bat edo beste
hasperen egin dut berak bezala
gezurra esan dizut ni ez nintzen hemen jaio
ez naiz inoiz bizi izan hemen
ikaratu egin dut
ni bizi izan nintzen etxeak
lurrarekin berdindu zituzten aspaldi

berandutu egin zait esan dit
erlojua erakutsiz altxaturik
kriminal bati ireki dio atea
sukaldean jesarririk jarraitu dut nik

dohakabearen izuaz ezaxolatua
zerbaiten hautsa daukat biriketan
baina ez du konprenitu
ez du entzun ere egin nahi
hautsa daukadala biriketan

atera du telefonoa urduri
tekla zapaltzen hasi da
besotik heldu dut
haurrik baldin baduzu
ebakua ezazu lehenbailehen
ohartzen da zoro batekin ari dela
baiezkoa egin dit isilik
misil israeldar bat dute programatua
zure haurraren bizitza suntsitzeko

noizetik noizera itolarri batek
behartzen nau ateak jotzen
ni hemen jaio nintzen
ni hemen bizi izan nintzen
esaten diot irekitzen didanari
zakarpetik atera ninduten hila non edo non
hautsa daramat geroztik biriketan
ebakuatu egin behar duzu lehenbailehen
suntsitu egin nahi zaituzten bizitzatik

Garazin ez ezik Gipuzkoan ere Salbatore gora da, Goierri eskualde garaian. Mendi bazterra ez liteke aldera Altsasu, Beasain, Zumarraga eta antzekoekin, baina horietan bezala egiten zuen geldialdia trenak, garai batean, Salbatoren.

Ez zen geltokia, maila apaleneko apeaderoa baizik, oina lurrean jartzeko lekua eta, egia esan, bertan jaitsirik han nonbait galtzeko gogoa ematen zigun leku misteriotsu horietako bat genuen huraxe Irun, Donostia, Iruñea edo Gasteiz bezalako karrikartetik gentozen bidaiariok: zuhaitzek jandako hormigoizko txabola, nora zihoan igarri ezin genion bidea, euskaraz harro egiten zuen jendea...

Baserritarrek erabiltzen zuten astegunetan, mendizaleek asteburuetan.

Ibilgailuen ugaritzeak ekarri zuen Salbatoreren gainbehera.

Hala ere, sei, zazpi txartel saltzen zituen billeteroak egunero. Eta urteetan trena gelditu egiten, nahiz inor hartu ez, nahiz inor utzi ez.

Egitate poetiko bat izan zen...

Oraindik orain eztabaida sakonetan dira bilduak Baionan lurralde antolaketaren adituak, gaia TGVa

dutela, Abiadura Handiko Trena. Menturaz Paris-Toulouse zatia eginen dute lehenago, baina nolanahi ere, Hendaiatik Bordelerainoko zatia Paristik datorren eta Parisera doan handikoari egokitzen hasiko dira. Adituok arduratuak baitira ingurumenaz, egokitzea satorrean eginen da, lurpetik, eta Baionako geltokia ez da Baiona izanen, Uztaritze baino. Ingurua ez da bortxatuko beraz, edo, hobekiago esanda, inguruak ez du ikusiko, hondamena ez dugu begi bistan edukiko.

Hegoalde honetan ere geologoak arranguratu dituen arinkeriaz esan izan digute politikoek handikoaren bide gehiena tunel barrukoa izanen dugula.

Baina, barka geologo lagunok, ez ote da hobe Abiadura Handiko Trenaren ibilbide osoa, osoa gero, satorrean egitea?

Ulertzen dut arrapaladan —eta are ikusi gabe— iragan nahi izatea Landak, Bordeletik Pariserainokoa, Gaztela... baina Euskal Herria?

Euskal Herria mendiz, basoz, baratzez, baserriz, lantegi bikainez, pintaketez, txalet hozki emangarriz, kamioiez, bizikletariz, jatetxe zatarrez, ardiz, lainoz, euriz, eskultura etnoz apainduriko naximentua dugu

trenetik. Bihurgune guztietan deskubrituko dugu detaile berriren bat geure eguneroko joan-etorrian.

Trenak ñabarduren Euskal Herria erakusten digu.

Alejo Carpentier kubatar nobelagile handiak euskal abiadurako trena hartu zuen behin:

«Europan egin litekeen bidaiarik zoragarrienetako bati ekin behar diot orain...»

Euskal Herria trenean zeharkatzea du inon deneko hori.

«Zuhaitzez brokaturiko mendiek biltzen dituzten ibar txikiz, harkaitzezko karrajuz, atakaz, zirkuz osaturiko zinezko labirintu batean barneratzen da burdinbidea».

Mundua ezagutzen zuenari mundu bat azaldu zitzaion.

«Urnieta... Tolosa... Beasain... Ormaiztegi... Zumarraga... Geltoki hauen artean inoiz geratuko ez garela badakigun herritxoak ageri dira. Ezein itinerariotik landa. Eta, hala ere, beren buruaz erakusten diguten apurra ezin interesgarriagoa da. Elizok eta zubiok ez dute berdinik munduan».

Munduak aurkitzeko, ikusmira dastatu eta hurrengo bihurguneak ekarriko digun ezustekoaz goza-

tuko badugu, astia behar da, ikusten ikasi behar da. Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa sigi-sagaren bidea dira, ahoan lantzeko jakia: bazter berriak aldiro, zoko-moko aldatuak alboetan, gaur ingumaz loraturiko sagastia, bihar artoa eguzkitan zapartaka, etzi orbelak lurraren azala herdoiltzen, gizakiak jasotakoen gristura harroa sarritxo eta Salbatore misteriotsuak noizean behin.

Horregatik galdetzen dut ez ote den hobe Abiadura Handiko Trena lurperatzea, hilerrikoen ilunpe berean egin ahal izan dezaten handikozaleek aitzina, argiaren eta paisaiaren marruskadurak berandutu gabe.

Handikozaleek ez dute astirik herri xume honi behako bat emateko...

Handikozaleek ez daukate ausardiarik gure labirintuan galdu-gordean ibiltzeko...

Doazela bada zizturik bizienean hemendik urrun diru publikoarekin egindakoa ustiaketa pribaturako behar duten erabakitzaile horiek eta orainaren zailtasun gozoa dastatu baino moztasun luzeko zuzenean estafak irentsi nahiago duten futurista zapuztu guztiak.

Dabiltzala arin batetik bestera ezin iritsirik, eta ez dezatela ezikusia egin behar izan, satortu daitezela benetan.

Edo gera daitezela papaoak bezala Salbatoretik urrunera gabe egin behar omen duten gunean —ez leku, ez geltoki, ez jaitsitegi—, «logistikoa» eta «intermodala» moduko teknikeria merkeek liluratuta.

Daudela edo dabiltzala, baina lurpean, hantxe, aroz eta oroz beheiti, erreferendumik beldurgarrienerako galderak asmatzen.

Gu helburu ederragoek eskatzen duten pausaje dotorean gabiltzan bitartean.

Trenaz ari ginen ordea...

Laster huts egin ez baina galdu eginen dugun tren horretaz.

Iragan asteartean egunkari honetan bertan gutun argigarrian erakutsi zigun Pierre Klanfer dohakabeak: SNCF erakundea ibilbide laburrekoak kentzen ari da luzekoen mesedetan, eta gero eta maizago TGVa hartzera behartzen gaituzte zenbait korrespondentzia lotu ahal izateko, euskal abiadurako trenak kendu dituztenez...

Horrela, Abiadura Handiko Trenaren erabilera puztu egiten da estatistiketan, Salbatoreko billeteroak bidaiariak puzten zituen bezalaxe. Hark, ordea, ez zuen inor utzi zerbitzurik gabe, ez garestiagokorik hartzera edo gaua hotelean ematera behartu: bera zen saltzen zituen txartelen eroslea.

Egitate poetiko bat izan zen harena... erretreta bermatze alde, bai, eta guk geure herriaren kontzientzia geo-estetikoa —eta baita politikoa ere— har genezan.

(Salbatoreko billeteroa. *Berria*, 2008-07-13)

LEIHOKO BULTZITIK

trenean joaten naizenetan
begiak beti batez

larrea bere belarrean
atea bere atalagan
ganbara bere teilan
teila bete katu
katea bere zakurrean
lantegia bere labean
tximinia bere kean
kea bete datu

trenean joaten naizenetan
begiak beti bakez

zubia bere ibaian
ibaia bere gurpilean
eliza bere kanpaian
kanpaia bete lantu
mendia bere tunelean
zuhaitza bere habian

habia bere arrautzan
arrautza bete kantu

trenean joaten naizenetan
begiak beti lanez

bidea bere burdinan
burdina bere greban
zerua bere hilerrian
hilerria bete santu
plaza bere tabernan
gaua bere geltokian
geltokia bete espantu
espantua bete babes

joaten naizen trenetan
biziak beti trabes

BARNE ERRIMAK POETEN SINDIKATUAN

idazkari burkide hori
egundaino pankarta ostean desfilatu dugun arren
orain bestelako jokamoldeak behar direla
esan zenigun azken batzar nagusian
gauzak legez egin behar ditugula
eta ibili, espaloitik ibiltzea komeni zaigula
eguzki berritan omen gaudelako
hori ere esan zenuen
lankide baten hitzak manipulatuz

barka ezazu baina uste dut legez ibiltzea baino
ibiltzea dugula zinezko helmuga
eta ez goroldioa biltzea giltzurruneko harrietan
ulertzen didazu noski
mugarik gabeko bide egitea baldin bada xedea
gauzak bidez egin behar genituzkeela esanen nuke
legezkoa izan bailiteke, frogatuak gaude, bidegabea

halaber dakizu bidezkoa izan naizela beti
ez naizela inoiz izan ez legezko ez bulegozko

eta bidezko militante huts gisa
bidea betean hartzearen aldekoa naiz, betean
espaloi batetik besterainokoan
ulertzen didazu noski
mezu ozar bat hedatzearren zabaltasunez
mezu zabal bat ozartasunez

banuke arrazoiren bat edo beste
mister ford gorrotatzeko
frau mercedesek
egunero harrapatzen dit katxoa gurpilpean
ferrari jauntxoak, il signorinok
gurdia bide bazterreko putzuan azeleratuz
burutik behera laidoztatu ninduen atzo bertan
eta ez nintzen bakarra izan
komeni omen zaigunetik, alegia, espaloitik nindoala

garaiok eskatzen duten moldekoa izan nahi nuke nik
zinez
horregatik idazten dizut gutun hauxe
idazkari burkide hori
uste dudalako eta piperrik inporta iritzi honetara
beste inor hurbiltzen ez bada nik badakit
behineneko landareak ez direla muskildu

espaloietan
baizik zapatak hondatu izan ditugun erre bideetan

eta beraz, jakizu orain arte moduan eginen dudala
bidera
elkar maite izan genuen izara margotu zaharrak
haizeberrituz
prosa zapaltzaile horren trafikoa trabatzeko
zuk agian ez ikusia egiten didazula espaloitik
baina zaude lasai idazkari burkide hori
ulertuko zaitut
sindikatutik bota nazatela eskatzen baduzu
zaude lasai
ukanen duzu epaiketa justurik

BATEK DAKI BIHAR NOLA

egiak esateko zaildu naute
zer axola nork zerk
edo nahiago baduzue
ikasia naiz hitz zekenak josten

kate izandako haiek
gaur dira kordelak
bihotza ez du bermatzen
beti zozkor berak

hosto izandako haiek
gaur dira orbelak
bihotzak ez ditu biltzen
beti mozkor berak

ikasia naiz koplatzen
malenkonia sortak sortzen
zer axola non nondik
frogatzen ahal dizuet elurra ez dela ikusgarria

gaizto izandako haiek

gaur dira onberak
bihotza ez du zauritzen
beti aizto berak

aintzak izandako haiek
gaur dira toberak
bihotza ez du gaiztotzen
beti gaizto berak

zaildu naute gezurrak esateko
edo nahiago baduzue
ikasia naiz hunkidurak josten
ikasia naiz koplatzen
lilisortak zimeltzen
zer axola nolakoak
frogatzen ahal dizuet bizia ez dela zekena

historia izandako haiek
gaur dira nobelak
bihotzak hastio ditu
beti arno berak

bizkor izandako haiek
gaur dira motelak

bihotza ez du berotzen
beti asmo berak

kartsu izandako haiek
gaur dira hozberak
bihotza ez du bizitzen
beti hilotz berak

egutera ziren haiek
gaur dira mospelak
bihotza ez du ibiltzen
beti bihotz berak

60

Zenbat hodei
hirutan hogei
uste
uste bete
eta loti
maitasunezko hitz haiek
torturatzaileari itzultzen
lotsarik ez
nik atea jo baino lehen
azaldu zinen oin hutsik

zenbat hodei
hirutan hogei
uzte
uzte moko
eta ezti
lagunak anbulantzian
maitaketan etenda
urdaila uzkur
irakurri dudan albistea
bestek edanen duen ardo hori

zenbat hodei
hirutan hogei
huste
huste neke
eta lore
azken argi tantaraino
zakur zoroen antzera
hitz baten eske
lagunaren errautsa eskuan
koldarra izan ez nintzen gau bat

zenbat hodei
hirutan hogei
urte
urte gezur
eta eki
eztabaida utzi ez jalgi ez
antzaren hegada han goian
guri deika
disko berdinak entzunda
elkar ez ulertzeko geunden

zenbat hodei

hirutan hogei
hodei
hodei baldar
eta ogi
hala moduzko ekaitz honetan
maitasunak zikinduaren
errai garbia
urak handitu egin dira badakit
helduko zarela on hutsik

BILBO

erre dugula gernika
irratian peredika
beraiek eta hitleranoek
egin dutena erdika

hegazkinak hor inguru
alarmek jo dute ulu
gernika ketan utzita orain
bilbo daukate helburu

kardenalaren kapela
aingeruen xaramela
zeruko armaz jantzia dator
ezpatadunen gaztela

odola eder sablean
areilza jauna salbean
intziri dagi haizeak minkor
indar handiko kablean

basoak dira ospeldu
lizar orriak orbeldu
mendian bizi zetorren ura
ibaizabalen moteldu

antxetak hodei grisetan
zazpi sudur anisetan
gure bizitzak bizigarri bat
eskatzen du anitzetan

amildegia gertura
burua ezin eskura
lau haizetara barreiatu zen
hiri honen hezurdura

tren barik dago atxuri
abando berriz urduri
isilik dator grebaren hotsa
bilbok ez maite neguri

errekaldean lizarra
hari begira izarra
mende honetan minbera dago
euskaldunaren bizkarra

enkarterriko burdina
errekaldeko turbina
lanez indarrez osatua da
bilbotarraren buztina

bikaina apaina liraina
historiaren iraina
bilbo hau bihurtua da bilbo
odolusteko izaina

baforeak datoz kaira
mundu osotik bizkaira
zutitzen diren otzanek dute
edertzen denon kondaira

zabala eta gazia
itsasoaren grazia
bide berritan abiatzea
nork dauka galarazia?

ERROMANTIKO BERANTIARRA

Ongi etorri hilezkorren hilobira
sartu, sartu beldurrik gabe
egiaren bila zatozen hori
erantzi itzazu begiak
pausa ezazu eskua horma izoztuotan
hemen ez daukagu teologorik
ziurtatu zidan atalaurreko muskerrak

deabruak itxaroteko eskatzen dit
laster emanen dugula
erroma errautsetan estaliko duen meza
baina aspertua nago
hegalok alferrik eramaten
beiradura horiek apurtu ordez
aitortu zidan erretaulako sugeak

utopia zuhurrak besterik ez ditu maite
ez egin jaramonik iparrari
jarrai dezala zorroztasuna mozten
har ezazu isiltasuna aholku

hautsaren matxinadaren zain egon gabe
aholkatu zidan kapiteleko arranoak
bere arrainbuztan biribildutik mintzo

entzun izarren higidura
badator tristuraren eklipse osoa
eguerdiak eta gauerdiak bat eginen duten unea
elkar maite dutenek
maitatu ahal izanen dutena
xuxurlatu zidan ponteko apoak
beldurgarria izanen da hobe duzu hemen
hemen ez da mundua sartuko

eta hi, zer izanen haiz hi orduan
zatiaren eskeko
altxorraren lurperatzaile
parabola berrienen sinesle
zer zer zer
egin zidaten zaunka hegaleko zakurrek

hoa hemendik
harrizkoak sortzen dituen haizean
barrezka ulu kanpandorreko urubiak

IRAGAN ZURBILAREN BALADA BARREGARRIA

Zer ote dauka?
zergatik ez datorkio berorik masailetara?
lotsa ote da gorritasunak erakusten?
zergatik ote da hain zainik gabea?
berak ere ez daki
odolik gabekoa da gure iragan zurbila

bisitatu ditu sendagile naturistak
eta turista handi hauek
alpeetara bidali dute ur bila

bisitatu ditu ezkerreko organoaren adituak
eta odolmindu handi hauek
sortu diote sekulako zurrunbila

bisitatu ditu akupunturatzaileak
eta akuilatzaile handi hauek
sartu diote arrain gezur pila

bisitatu ditu psikoanalistak
eta zurrupakari handi hauek
galdetu diote bere iragan zurruna

orduan iragan zurbila
zuhurtzia galdurik zurrusta batean hasi da
elerik maiuskulenak jaulkitzen
labezomorro labirinto laido laino larru laztan
leize leun lerden
psikoanalista zurrutalarienek ere
ulertu ezin dioten zurrumurruan
harik eta iragan zurbila pazienteak
liburu!
esan behar zuelarik psikoanalisten ugazaba
libido! hotsean lehertu den arte
bere diagnostikoa emanez

kalera jaitsi dira iragan zurbila
eta psikoanalisten gabinete osoa
pazientearen zurbiltasuna
zurrutaldi on batek sendatuko duelakoan
baina ez dituzte dosiak kontrolatu
atzendu dira iragan zurbilaz
atzendu dira iragan zurrunaz

eta beren orainaldi lurrunaz
hasi dira gogoaren putzulari
zintz eta zotin, zintzarri zurrunbada belarri betekoan
gobernu goibel gomendio gomuta gonatxo gordin
harik eta psikoanalistaren batek gorri! esan ez dezan
iragan zurbila pazientea
gozamen! hotsean lehertu den arte
inork topa egin ez dion kopa jasoz

gozamen!
errepikatu du iragan zurbilak zurtuz
gozamen!
orpo-behatzez markatu du zurrumadantza
nolako plaza oraintxe gaztelu plaza
jauzi eta balantza aldatu zaio karantza
aldatu zaio karantza baina psikoanalistek ez ikusi antza
iragan zurbilaren ikara
produce of scotland hodei batek dauzka eznorantza

iruñean, lupeko parking baten sabai gainean datza
iragan zurbila burua eskuetan gorderik

ez da hila
bere odolaren lotsa da hotza nahi du masailetara
zer egin dut! dantza! dantza egin dut!
ez du gorritasunik nahi
izua iduri izan behar du zuri bezain beluri
iragan bat dauka eta ezin dio egin itzuri
orain badaki
zer zoramen zer aztoramen
gorritasun hartan
gaztetan, behin, zer gozamen, odolbero baztanen

IRAGAN ZURBILAREN BALADA NEGARGARRIA

lurmendu ezineko lur
gailurreko elur hila
aburua aspaldi zurituta
zaurituta gorririk ez:
odolik gabekoa da
gure iragan zurbila

zainak azaoan estu
amestu ezinean zorrotz
grina gaitzek ote helduko
epelduko duten beldurrak:
bestera da bera bare
ez bero eta ez bihotz

erorka lezake izi
bizi izanaren damuak
ostera ere liteke ero
odolbero bihurtzeraino:
horixe dio oroitzen
lepotik daukan mamuak

bere buruaren lotsa
izotza bezain beluri
ilargia baleza erre
loerre honetan behar gabe:
zirrara onik ez duen
zintzotasuna dirudi

perfekziora du olde
moldez ateko masailak
haren alde putzaren hurre
zuhurreratu ez ginenok:
bikaintasuna du muga
gogoan beharren sailak

barau lizunaren hatsa
gezurpatsaren lurruna
besterik ez moral idorrak:
zidorrak dituela bide
non datorren zurbil, zurbil
gure iragan zurruna

Atzo bi ume ikusi nituen zuhaitzean. Sinesteak ere lan du, baina ez naiz asmatzen ari. Zenbat urte halakorik ikusten ez nuela, bi ume zuhaitz baten adarretan!

Hiriko errebal bateko espaloi jarri berrian iltzatu zuhaitz alferra zen zuhaitza, lanik ez hartu ez eman egiten ez duen apaingarrirako horietarik, auskalo nolako hibrido, hostaje eternaleko zur buru-harroa. Adar haietan ez da ezkurrik ageriko, eta kurloiek, berriz, teilatu hegalak hautatzen dituzte habiak egiteko errebalotan. Harritu egin ninduen adarretan arriskatzearen helburu materialik ezak.

Zertara igo ote ziren? Babes ofizialeko etxe multzo erraldoiak aitzinean, lantegi abandonatu baten pareta zikina atzean, etxe gehiagoren artean galtzen den karrika alboetara... Hauxe bai zuhaitz aproposa eguzkiaren sartzea dastatzeko, neure artean. Baina idazlekeriak dira, noski, paradoxaren lilurak. Elkarri isilekoak esateko ziren igoak, menturaz? Leku libre bat nahi ote zuten, eremu ezkutu bat beren sekretuen gordetzeko?

Sumatu nindute neko ihes egin zuen batek, zuhaitzera igo ez ezik jaisten ere bazekiela erakutsiz. Ada-

rretan gelditu zen bestea, kopetilun behatzen zidala eman behar niokeen errietari entzungor egiteko prest. Orduan konprenitu nuen zergatik ziren zuhaitzean, eta miretsi nituen, zinez, ume biak: ezagun zuten gaizki eginaren kontzientzia zeukatela. Hunkidura gozo bat bilakatu zitzaidan hasierako harritzea.

Ez al da egia gizarte honek galarazia digula zuhaitzetara igotzea ere? Debekua hausteagatik zeuden han, gaiztakeria egitearren igo ziren zuhaitzera. Besterik gabe eta oroz gain. Haserre eginen niela espero zuten biek, esan dizuet. Errebalean eta ilunabarrean, bai, baina hiriburuan, benetako karrika batean, zeuden ume bi, ausart, zuhaitzean. Arriskuaren froga, neu azaldua.

Nola eskertu eman zidaten poza?

Irribarrea eskaini nion hosto tartetik erronkoso behatzen zidanari. Gorago igo zen. Ihes egiteko beste modu bat, baina sofistikatuagoa: gomitatu egiten ninduen eskuei listu eman eta enborrean gora has nendin, erorikoa onartzeko adina adorea ote neukan jakin nahi zuen. Zuhaitz izan banintz, airean goratuko nukeen jostari, gero berriz besoetan hartu ahal izateko!

Zertara igo ziren gogoetatu baldin banintzen aurrena, zergatik hunkitu ote ninduten horrela galdetu nion neure buruari ondoren. Eta ikusia nintzen koadroari titulu egokia asmatu nahi izan nuen, esplikazio gisa. Poesiaren baliabide guztiak harrotu nituen, baina ez nuen neure betekorik aurkitu. Titulu deskriptibo bat saiatu nuen, eta motz gelditu zitzaizkidan guztiak. Etsita, zuhaitzean bi ume ikusteak eragin zidan zirrara aztertzeari lotu nintzen, berbagintza bazter utzirik. Eta noizbait, neure sentimendua umeen arrazoi matxinatuari lotuz, aspaldian pairatu gabeko eritasun mesprezatu baten izena etorri zitzaidan, xume eta erregarri, ikuskizun hark emandako hunkidura berritzean.

Bai, oraindik ere badaude errebaletan zuhaitzetara igotzen diren umeak. Eta debekatua dutelako igoko dira bihar ere, erorikoaren beldur barik. Horrela kutsatzen digute ezinbesteko eritasun hori, gure hunkiduraren izena: esperantza.

(Esperantza. *Egunkaria*, 2002-08-27)

KOPETAKO ZIMURROK

edonori zaizkionak zaizkit niri gertatu
gantzuturiko aginduak irentsi izan ditut
egunkari paperean bildutakoarekin batera
edonork ikusten duena dut idazten
besaulkirik gabeko katua bezain triste
zeharrean behatuz
katurik gabeko besaulkia bezain bakarti
algara egin ahal izateko
bekaina gaiztotzen dutenen artekoa naiz:
ez dauzkat inori kenduak
kopetako zimurrok

anaiaren lagunei entzun nien halakok
halakoren zakurra
estaltzera eraman behar zuela berea
eta nik ixidro eraman nuen neurekin
ikusi gabea zen txunditu zen
huraxe zen estaltzea
ez esateko inori agindu nion
eta ez zekiela aitortu zidan masailak gorri
berak uste zuen zakurrek

pertsonok bezala egiten zutela
pertsonok bezala esan zidan ixidrok
uralita fabrika zaharreko tapiaren ostean:
ez dauzkat atzokoak
kopetako zimurrok

gabardina zuriko gizonak
pistola atera zuen tabernan
denek egin zuten murgil zerrautsera
kanoiaren begiari beha geratu nintzen ni
eta geroztik gizonak
etzanda zeudenei egiten die tiro nire eldarnioetan
eskutik helduta ateratzen nau amak
zer ari zinen hor
emakume bat umea jotzen aurreko espaloian
ez gelditu agintzen dit bestek zer egiten duen
begira:
ez dauzkat katuak eginak
kopetako zimurrok

gizarte zabar honetan beti beharko da
zeinek proposamen berriak egin
esaten zigun esanez alegia
agintzeko prestatzen gintuztela

esku geundela berritasunean
eta esker onekoak izan behar genuela
berarengana adibidez
bitartean guk geure ariketa espiritual propioan
dantzari biluziak ikusten genituen
irakasle aurrerakoiak pipatik jalgitzen zituen
bihurretan:
ez dauzkat oso zuzenak
kopetako zimurrok

ondo al zaude izan zen galdera
masaila laztantzen zidaten
atzamar delikatuek
atera ninduten heriotzaldi ezti hartarik
elurraren gaineko eguzki epeletik
ondo al zaude izan zen galdera
orain bai erantzun nion
eta begiak zabaldu nitueneko
goian zen eguzki urrunduak itsutzen ninduela
suntsitu zitzaidan barrezka galderaren aurpegia
ustez laztan hark agindu zidanera iritsi gabe:
ez dauzkat nire mende
kopetako zimurrok

bestelako arautan jarraitu zuen afarian
gure isileko bilerak
azken finean estatuaren adore estoka
ez zela gurea baino handiagoa esan zuen
alkoholik hartzen ez zuen hark
eta nik ere topa egin nuen
agintzen zitzaigun
azken ordu laurdeneko erresistentziaren osasunaz
edalontzi hutsurranari beha geratu ordez:
ez dauzkat muga txarrak
kopetako zimurrok

alegiako inozo geratu izan naiz
atzamar luzatuari beha
astronauten entrenatzaileak balira lez
ilargirako bidea
erakusten zidatenen aitzinean
agindu luzatu hark
eskaintzen zidanaz ezaxolatua
jakilearen boterea zeukan
tentetasun motzak liluraturik:
ez dauzkat gutxi landuak
kopetako zimurrok

agindua antolatzen duen gezurdura
atzeman liteke atzamarrari beha
atzamarraren kanoiari beha suma litezke
uhinak ilargian joka
ilargiaren alde ilun honetan
eta inork entzun nahi ez
atzamar tentetu bat belarriak ezkotzen
eta uhinak bertan
ezinezkoaren froga ematen
nolako algarak egin izan ditudan neure buruaz
kronikako inozo:
ez dauzkat merke saltzeko
kopetako zimurrok

kopetako zimurrok
hala nola esku barneko marrak
aurrena lagun galduena
bigarrena galdera isilduena
gainerakoak etorriko diren egitekoena:
ez dauzkat azalean
kopetako zimurrok

BIHAR

ez naiz bertan izan
eta ez dut uste harakorik hartuko dudanik
baina bazter zoragarria izanen da noski
entzuna nago ez gaituztela lanera lotuko
inon irakurria naiz
hostoak gorri izanen direla beti
eta fruituak urtsu merkatu plazako zuhaitzetan
inori ez esateko esan didate
alokairua ez ordainduta ere
ez omen gaituzte botako maitasunetik

bazter zoragarria izanen da noski
eta bertan inoiz izanen naizenik uste ez dudan arren
emon gogorrean aritu naiz
harako oinarriak margotzen eta bideak erreteilatzen
ezbihar txatxu batek
bihargintza utzi eta ohera bihartu nauen arte

bihar ez bezala bizi naiz gaur
oinarriak margotu eta bideak erreteilatu ezinik
biharti

biharlekuko lagunak ere ez baitzaizkit azaltzen

biharreria gaizto batek dauzka sats eginda

bihartsuen etxean larri eta

sendagileak esan omen du biharbada sendatuko dituela

biharrik baldin bada

SUR LE PONT DU KURSAL

Sur le pont du kursal coule la foule
et nos amours
zenbat amore hainbeste malur
euria ari du tantak mardul

coule la foule et coule la pluie
euria messieurs-dames euria oui

sur le pont du kursal doa ramon
le nez dans l’eau
tupust eginda eskatuz pardon
roman berriak dio jaramon

coule la foule et coule la pluie
tupustez tupust hamaika ipui

kursal zubian ramonen joana
souffle le vent
bide eginez hizkuntzan barna
lanbide larri bati emana

coule la foule et coule la pluie
idazlea da oroz minduri

kursalekoa ez du ostera
les ponts sont longs
zubi berriak hitzez jostera
pauso askorik ez du bestera

coule la foule et coule la pluie
ramon s’en va et la pluie avec lui

sur le pont du kursal coule la vie
et nos amours
maitemin txipi minbera handi
atertu egin du laster zohardi

ramon, eurilapur, nora hoa?
le pont du kursal c’est moche sans toi

POESIA

Sagastia sortzeko patio mortuan
artizarrari leku egiteko leihoan
garunari taupaka irakasteko
enbatari hitz batzuk eransteko
gosetuaren igitaia zorrozteko
ez harria esnatzeko
azala behar nuke!
ordua emateko hartzen zaitut eskuan
igitaiaren gosea zorrozteko

laguntza emateko hitzetan gatibu den kantuari
upelak porrokatzeko tristuraren merkatuan
epaileei isiltasuna eskatzeko
ingudeak eskertzeko
huts eginik laztan bat asmatzeko
ez harria esnatzeko
kopeta behar nuke!
huts eginik min hartzeko
huts eginik min hartzeko

mailua zarelako

hartzen zaitut eskuan ordua emateko

maisua zarelako
hartzen nauzu eskutik neu esnatzeko

eta harriari galde egiteko

ABERRIAREN ALBUMEAN IKUSKA

egizu kontu gure modernitatearen lehen ikonoa
dela
utikan zumalakarregi txapelik gabe!
haren eredura azaldu ziren gero santa kruzen
gerrillariak
gurutze santua lagun liberatu gintuzten erreketeak
egizu kontu argazkia sortu zenetik dakigula
txapeldunak izan ginela
krosean edo bertsotan edo boxeoan edo
txirrindularitzan
gailendu behar izan gabe izan ginela txapeldunak
eibarko mitinetan eta urkiolako erromerietan
gizaajo unamuno! behin bederenik gurea janzteke
sartu nahi izatea gu bere arrazoien burdinbidean...!

txapelerdi kasta ezain bat hasi zen ugaritzen
orrialde batzuk geroago
euskaldunok kulturan txertatu nahi izan gintuena
mundutar aurkeztu beharrez
zenbatetan ageri ote da sabino arana txapelarekin?

beha ezazu hau, jose antonio agirre
bai, gure lehen lehena
ezagun du ez daukan sanotasun bat nahi digula erakutsi
txapeldun ageri den argazki bakarra du
mendi ibili bat egitera datorrela dirudi makila eta guzti
lubakietara joatekoak diren tropen aurrean
beha ezazu beste hau
eskuina napoleontxu ezkerrean zigarroa
aterki bildua besotik
ebaki oneko berokia erdi lotuan argazkirako pozez
bere kapelu borsalinoarekin
beha ezazu horretan bertan, bere atzean
sumatzen den jende multzoa
txapeldunak dira, bere alderdia, traidorea agirre
traidoreak iparragirre otaño indalezio prieto txapelerdiak
denak multzotik bereiz argazkirako
gure ezaugarria kakoan uzteko batere arazorik gabe
txapelerdi ramiro arrue bere beret basquerekin
txapelerdi txapela hain jator janzten zekien pio baroja
traidore kasta ezain honek kendu zuen txapeldunen

eta kapeladunen artean ezarria genuen mugarria
txapelerdiok moldatu gintuzten
orain garen burujantzirik gabeko jendaila

nahiago nuke gernikako arbolaren batean
zintzilikatu izan bagenitu gure txapelak
noizbait egindako zina bete arterainokoan
edo ezagutzen ez dugun bertsolariren baten
zortzikoak
txapelak erantzi eraginik utzi izan bagintu soil
edo billabonako mantxuaren geometria
ezinezko batek liluraturik
txapelak kantxara jaurti eta
haren omenez bihurtu bagina
orain garen diosalik gabeko matxango samalda
baina ez zen horrela gertatu
ondikotz, gizon txapeldunaren endekatzea

parisek ezarri modako sasikoak jantzi zituzten gero
gure emakumeek
haiek ere ez zuten herri izan nahi
ez zuten sekula herri hau izan nahi izan
asko zekiten txapelaren eta are txapeldunaren
kalitateaz

balmasedan la encartada pasaian usoz hermanos
tolosan elosegui
emakumezkoak ziren gure erdiaren irudia
fabrikatzen zutenak
gehien zekitenak gutaz
gorputz xalo bat burutik behatzetaraino
etchandy espartin fabrika maulen

UR-ETENA

ezin promenatuko zaitut txalupan
urik ezean oro da barranka eta hondamendi
errekaldeak ez du lizarrik haziko
izarrak ez du izanen nor barrandatu
non beratuko ditut oinetako azkazalak?
non baretuko ditut asaldura hauek?
non baratuko da ene arraunketa?

itsasora nahi dute orbelek
itotasuna behar dut sentitu nik
kaferik gabeko gauak!
errealitatea harrika hausteko putzurik ez!

eta azpi horri beha dagoen neska erromantikoak
horra egin behar ote du jauzi haitzarte horretara?
suizida arrunt baten gisa lehertuko da
heldu behar diodan eskua luzatu ezinik

zertarako nago ni orduan?

eta zer doa joan orain

mirabeau sant angelo kintaikyo khaju
edo mixelengo zubi famatuaren azpitik?
hego erreak apezei eraman kapeluak?
gure gorrotoen lupetza? etorkizun baten ustea?
zeren esperoan azaldu leihora?

zertarako nago ni behar den orduan?

eta nola hartuko gaitu suak
urak egin izugarrien berri emanen ez badigute
irratiek?
nola garbitu lasai gure aurpegia, gure eskuak
gure esku garbiak batez ere
nola garbitu gure esku garbiak
aurrez uraren kondena egiteko aukerarik ez
badugu?

eta nola jasan ahal izanen dut
begi bistan edukiko dugun azpiko mundu
ederretsia?

eta non berdindu behar dut egarria
zure aurpegia ispiluetan besterik islatuko ez bada?

orain, ur-etena dekretatu dutenez
entzun ahal izanen dugu xirriparen xuxurla

BERLINEN BIZI NAIZ

esana dut, berlinen bizi naiz
hau ez delako hiri bat hau berlin da
leku mitikoa babel antolatua
kaiserrari dekretuak sinarazitakoa
elkarrekin bizitzeko sortua
gure ama dela uste du isilduko balitz
mundua gortu eginen litzatekeela esanen luke
bortxatua errea bonbardatua
eta batekoz bestera ere bai
baina oroz gain berez gain berreraikia
nola ez naiz berlinen biziko
atertu gabe hondatzea atertu gabe eraikitzea
eraikitzea bera hondatzea bihurtzeraino
eta batekoz bestera ere bai
horixe omen da hiriaren izatea
horregatik ez naiz aspertzen berlinen
elurrik ari ez duenean ere
begion aitzinean iragaten dira kaioak
parapenteak polizia mota guztietako helikopteroak
jomuga terapeutikoak bereizten
harresiaz lekora bizi garenon baratze susmagarriak

ibiltzen ditugun bidezidorrak
ibiltzen gaituzten nondik norakoak
lehorretik sobera urruntzen diren txalupak
harresiaz barne dauzkagun aliatuak
aldirietara hartu gabe bertan geratu diren
bihoztunok
ahal duten beste saboteatzen
fikziozko sukaldaritza jaialdi autoktonoak
bakarreko aulkiak bunkerretako hoditeria
araututako ikaskuntzak
sekulako ikusmira daukat leihoan
harresia aspaldi birrindu zuten arren
inoiz baino gotorrago ageri baita gure begi bistan

hiri bat antzo hitzak hesian
maitagarri berlin?
krabelin!
berlinen bizi naiz
guztiz damubehar sinetsian

berlinen bizi naizelako
promenatzen naiz paperetan irakurri ditudan
straßeetan alexanderplatzen heinrich böll
eta judu herratua bezain susmagarri

harresiaren alde bietan ibiltzen naiz
artesirik meharrenak baliatzen ditudala
hiriaren galanta miretsiz bertakoei esaten diedala
badakizue non zaudeten?
badakizue muino horiek ez direla artifizialak?
badakizue portaleta hori ez dela brandenburger tor?
badakizue parisek ez daukala honen parekorik?
baietz egiten didate kopetarekin
turkieraz egin banie bezain ilun
karrika artean galtzen naiz neu ere etorkin
historian ageri ez diren harresi berriak
deskubritzen ditut egunero
ibiltzeko ildoak pentsatzeko moldeak
hiritasunaren aurkako proiektu beldurgarriak
aterrune bila azaldu naizen liburutegian
nor den ez dakidan baten galderak erakutsi didana
ikusi al duzu egin duten azkena?
eta egun osoan atertuko ez duelakoan
elurpean abiatzen naiz hainbat zirritutan barrutua
traba arkitektonikoen gaindegietarik
begipean nahi ninduketen sorosleen ihesi
lehen bigarren hirugarren harresitik haratago
izendatzaileek ez dakizkiten bidezidorretan
planorik doituenen biktima izanen den lurra

masaiatuz
berlin maite ez duen berlin horretara
nire kodean hitz egiten dutenen tabernetara
berlin madarikatzeko
hiribarnerako mina ezkutatzearren

beti hiriaren ihesian
aski ez berlin?
hor ezin!
berlinen bizi naiz
arrunteko auzo berezian

zoragarria da hiri hau
erraustegiko kea dator mulkotan leihora
nik burdineria dendetan bezala
atxikitzen du kopeta beiran
jazarra nondik helduko den atzeman ez dezagun
txirrina jotzen didate etxepekoek
agiriren bat idatziko dugun kearen aurka
kalte handiak egin zizkiguten urbanistek orain
hurrengoan
hiriko postal zaharrak oparitzen dizkit goikoak
harresiaren behealde osoa mezu likinez
utzi du garbi bere seme gazteak

koloretako lapitzak ekarri dizkioten ume
hemen ez daukat haserretzeko arazorik
baina non da tokio non da kopenhage non da
montevideo hemen non beirut non luanda
zer kosmopolitika da hau
umeon marrazki margodunetan bakarrik
izaten ahal da zuen hiria ezer
nola jakinen dute sonanbulu arropazaleok
antxoa eta sutauts barrikak behar dituela karrikak
zinezko karrika traumen fabrika dela
eta zuenenak fusilatuen harresian dira hasten
bere burua bota zuten nerabeen harresian
eszentrikook bizi garen mendialdera datoz
kafetegietan jesartzeko gogorik gabe
eratu dizkiguzuen naturgune zibilizatuei muker
eginik doaz
basora bokalera itxitako galdategietara
tomate hidroponikoak ekoizten dituen zabortegira
ardo merkeago eta kermeza mergatzagoen eske
aldiriak bihurtzeko gauaren buru

ez naiz aspertuko eresian
ez maite berlin?
zer egin!

berlinen bizi naiz
begia urratzen artesian

eta berlinen bizi ez naizelako
eramaten nau ez dakit haserreak beste zer edo zerk
matrioskaren muineraino
postalak erakusten dizkiet bertakoei
hau zen bulebarra hau zen merkatua
merkatua, hitza trukatzen genuen lekua
hau zen zure barrutiko iturria
bonbardatu bortxatu erre egin zaituzte
burgesek alde egin zuten zu abandonatuta
azken mugako udajauregi batean bildu ziren
idatzi zuten aldarri historiko bat
zure gorputza berreraikiko zutela zin eginez
kiskaliak zeneuzkan atalak gose sosetan erosita
harresia desmuntatu zizuten gero orriz orri
negozio polita hura ere ensantxe honen azpian
zure gorpua dago bortxatua errea bonbardatua
ez ikusiarena egiten didate mutu
beren hiritasunaz ezaxolatuta
argazkiak berlin zaharrarenak balira bezala
kaiserra ageri ez balitz bezala nautikoko pasarelan
galdu egin dute hitzaren tratua egiteko ahala

barkatzeko esan gabe egiten dute alde
ez dute jakin nahi beren hezur zatiak direla
saltzen dituzten subenirrak
elurra hasi du eskiak jantzi behar dituzte
berehala beteko da hondartza lerratzaile sutsuz
argikoroa lauso bat hartu dute tamariz ilunek
eta udal gobernuak edonon landarazi dituen
palmondoek
moteldu egin dute abiada altzari urbanoek
zaratarik ez biztanleen telefono solasak ozen
berlinen ikasten dauzkaten seme-alabei
hemen elurra ari duela esaten
egin behar genituzkeenak oro atzenduta
ni ere halaxe, aitor dut
inon ez bezala elurtzen baitu hemen
eta elurrik ez denean berriz
deskutsatu gabeko herritarra hiriak duela dolore
gelditzen naiz etxean
katharina blumen gorpu bonbardatua
azaldu zen ibaiertzaren galde eginez
berlinen beldurrik gabe ibiliko naizen hartaz
pentsatzen

hiria eraiki poesian

nola jaso berlin?

haize min!

berlinen bizi naiz

izan eta ezineko etsian